

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOA

SUSTATZAILEA - IRUNgo UDALA
EGILEA - CONCHI URIARTE SEMINARIO
LAGUNTZAILEAK
NEKANE AZAROLA MARTINEA - Abokatua
NEURRI INGENIEROS S.A. - Planoak

ONARPENA

I. MEMORIA

II. FITXAK

2009ko UZTAILA

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOA

I. MEMORIA

2009ko UZTAILA

INDIZE OROKORRA

I. MEMORIA

1. AURREKARIAK	1
2. LANAREN HELBURUA	2
3. INBENTARIOARENA: OBLIGAZIOA, OSAKETA ETA EDUKIA	2
3.a. Legeria aplikagarria	2
3.b. Lege obligazioa	3
3.c. Benetako beharra	4
3.d. Inbentarioa osatzea eta onestea	5
3.e. Inbentarioa berrestea	6
4. METODOLOGIA ETA LANAREN FORMATOA	7
4.a. Datu bilketa	7
4.b. Informazioaren azterketa	8
4.c. Fitxa tekniko juridikoa	8
5. ERABILITAKO IRIZPENAK ETA INBENTARIATUTAKO ONDASUNEN ZERRENDA.....	11
5.a Erabilitako irizpenak	11
5.b Inbentariatutako ondasunen zerrenda	12
6.- INBENTARIOAREN ONDORIO NAGUSIAK.....	13

ERANSKINA

- 1 - INBENTARIATUTAKO HERRI-BIDEEN LABURPENA (m)
- 2 - ARGAZKIEN ZERRENDA

II. FITXA TEKNIKO JURIDIKOAK

III. PLANOAK

- OROKORRA (E: 1/10.000).
- MENDEBALDEA (E: 1/5.000)
- EKIALDEA (E: 1/5.000)
- HEGOALDEA (E: 1/5.000)

1. AURREKARIAK

Irungo Udalak, Irungo landa lurreko Herri Bideen Sarearen Ikerketa eta Inbentarioa egiteko lehiaketa antolatu du, jarraian egin beharreko 3 fasetan banatua:

- Lehendabiziko fasea: aztertutako bideen fitxak eta planoak egitea da, landa-laneko ikerketa lanetan eta dauden agiriak aztertu ondoren lortutako datuekin.

- Bigarren fasea: proposatutako bideen berrazterketa tekniko-juridikoa egitea eta jabetza eskriturak aztertzea, egindako fitxak osatu, jende aurrean jartzea, alegazioak ebaztea eta behin betiko agiria idaztea, onartua izan dadin eta Ondasunen Udal Inbentarioan eta hiri-antolamendurako plan nagusian sartzeko

- Hirugarren fase: arazoak dituzten ibilbide zatiak edo identifikatzeko zailtasunak dituztenak sakonki aztertzea.

Lehen fasea bukatu ondoren, 2008ko abenduaren 22ko 3.303 zenbakia duen Alkatearen Ebazpenaren bidez, Irungo landa lurreko Herri Bideen Sarearen Ikerketa eta Inbentarioko (lehenengo fasea) agiria jende aurrean jartzea ebatzi zen.

Jende aurrean egon ondoren, 14 alegazioa jaso dira, 12 bideei buruzkoa, eta hauetatik 9 onartu dira, kontuan hartu direlarik agiri hau idazterakoan.

2. LANAREN HELBURUA

Dokumentu honen helburua, Irungo landa lurreko bideen ikerketa egin eta udal eskumenekoak direnen inbentarioa osatzea da, modu honetan ikerketaren lehendabiziko bi faseak amaitutzat emanaz, eta Ondasunen Udal Inbentarioan eta hiri-antolamendurako plan nagusian sartuz.

3. INBENTARIOARENA: OBLIGAZIOA, OSAKETA ETA EDUKIA

Atal honetan zenbait alderdi bereizi behar dira

3.a. Legeria aplikagarria

Ondasunen Inbentarioa egiteak, obligazioari zein osaketa eta edukiari dagokienean, apirilaren 2ko 7/1.985 Legean, Erregimen Lokaleko Oinarriak arautzen dituen; apirilaren 18ko 781/1.986 Errege Dekretu Legegileak onartutako Erregimen Lokaleko Materien Xedapenei buruzko Testu Bateratuan, eta ekainaren 13ko 1.372/1.986 Errege Dekretuz onartu zen Entitate Lokalen Ondasunen Arautegian dauka oinarria.

Inbentariatutako Ondasunen Jabetzako Erregistrora iristeko era, Hipoteka-Legean eta garapenerako Araudian jasotzen da.

Bestalde, herri bideei dagokionez, Ekainaren 6ko 1/2006 FORU DEKRETUA ARAUDIA, Gipuzkoako Errepide eta bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzen duena, Gipuzkoako errepide eta bideen erregimen juridikoa xedatzen du, errepide eta bideen plangintza, finantzaera, proiektugintza, eraiketa, aldaketa, artapena, erabilera, babesa eta ustiaketa oso-osorik eta hauek inguruarekin integratzeko ikuspuntua ere erregulatzen du.

Aipatu Foru Dekretu Araudiak bere 2.2 artikuluan “bideak” honela definitzen ditu: jendeak erabiltzeko dauden herri jabetzako lehorreko komunikabideak, baldin eta errepidetzat hartu ezin badira, zolatu gabe daudelako edo ez dituztelako betetzen ibilgailu automobilen zirkulaziorako egindako, otondotako edo proiektutakoetan ohizkoak diren ezaugarri eta betebeharrak teknikoak. Herri jabetzako mendi-bide eta Basoko pistak, zolatuta egon da ere, “bide” izaera izango du.

Sailkapenari dagokionez, 5.A artikuluan, Gipuzkoako errepide eta bideak, jabetzari begira sailkatzen dira, Foru Aldundiko jabetzakoak diren “Foru Aldundiaren Errepide eta Bide Sarea” eta Gipuzkoako udalerrien jabetzakoak diren gainontzeko errepide eta bideen artean bereizten delarik. Gipuzkoako errepide eta bideak “Gipuzkoakoa udalen Errepide eta Bide sarea” osatzen dute.

Agiri honen bidez, Irungo udalerriko bideak inbentariatu nahi dira.

3.b. Lege-obligazioa

Berau Erregimen Lokaleko Xedapen Legalen Testu Bateratuaren 86 artikulutik eta Korporazio Lokalen Ondasunen Arautegiko 17tik eta hurrengoetatik ondorioztatzen da. Eta horien arabera:

“Korporazio Lokalek inbentario – baloratua – egin beharra daukate, dituzten ondasun eta eskubide guztiena edozein delarik ere izaera edo eskuratzeko bidea”.

Halaber, eta ondorioztatzen den obligazio gisa xedatzen da, erreferentziako testu legeletan, baita Hipotekako Legean eta beronen garapenerako Arautegian ere, ondasun higiezinak eta Erakunde Lokalaren eskubide errealak Jabetzako Erregistroan inskribatu beharra dagoela.

Bestalde, herri bideei dagokionez, aipatu ekainaren 6ko 1/2006 Foru Dekretu Araudiaren 6.2 artikulua Gipuzkoako udalek beren errepide eta bideen katalogoa onartuta eta eguneratuta edukitzera behartzen ditu, eta katalogo hau izango da oinarri Arau honetan xedatutako inbentarioa egiteko.

Era berean, 9.1 artikulua Gipuzkoako udalek beren jabetzako bideen herri jabaria osatzen duten errepideen, bideen eta gainerako ondasun higiezin inbentario beti eginga izango dutela adierazten du. Inbentarioak agertu beharko du errepide edo bide bakoitzaren deskribapen ahalik eta zehatzena, luzera, hasierako eta bukaerako mugak eta ezaugarri orokorrak azalduko dituen, ahal dela aipatutako ondasunen mugaketa agiriak ere barne direla.

3.c. Benetako beharra

Udal-ondarearen ezagutza zehatza eta sakona izatea nahikoa eta aski arrazoi bada inbentarioa egiteko.

Aipatu agiria berez, Udalar bere ondasunen inguruan dagozkion fakultateak behar bezala exekuta ditzala etengabe orotarazteko balio dio.

Horrela bada, Udal Ondarea bere osotasunean zaintzeko eta gordetzeko egokitasuna eta beharrezana sortzen da, hirugarrenek egin lezaketan usurpazioetatik babestuz eta udalaren ondarearen inguruan zehaztasun ezetatik sor litezkeen egintzak egiteko.

Bere interesa katalogazioan dago, bertako ondasunen eta eskubideen zerrenda ordenatua eta baloratua, zeinaren bidez bertan jasotako agirien bidez informazio zabala jasotzen den.

Beste ikuspuntu batetik duen balioa ere aipatzekoa da, salbuespen bidetik emana, eta Entitate Lokalak inskribatzeko titulurik ezean, ondasunak eta eskubideak bere alde inmatrikulatzeko duen ahalmena da, Hipoteka Legearen 206 artikulua eta Araudiaren 303tik 307ra bitartekoek arautzen dutenaren arabera.

3.d. Inbentarioa osatzea eta onestea

Izaera orokorreko Inbentarioa Udal Ondareko ondasun eta eskubideek osatzen dute, ondasunen deskribapen banakotik hasi eta atal ezberdinetan sailkatuta, ondasun-motaren arabera, izaera juridikoaren arabera eta gainerako elementu bereizgarrien arabera.

Behin Inbentarioa eginda, Entitate Lokalaren ondasun eta eskubideak hartzen dituen, Udal-Korporazioaren eskuduntza da beroriek onestea.

Kasu honetan, agiri honetan inbentario bat osatzen duten elementuetako bakarra jasotzen da, udal-jabetzako bide publikoak. Garrantzitsuak diren ondasunak; izan ere, udal ondasunak izanik, sarritan zaila izaten baita bere titularitatea kreditatzea, Udalarenak antzina-antzinatik diren arren, jabetza hori kreditatzen duen titulurik ez dagoelako. Baina jabari publikoko ondasunen kasuan jabetzaren erabilpen publikoak eta udalak egiten duen artak bere titulartasuna kreditatzen du.

Honela, garrantzi berezia dauka ondasun-mota hauek Inbentarioan jasotzeak, udal-bideak eta landa-lurreko lursailak biltzen dituen agiri bakarra izango baita, titularitate publikoa kreditatzeko oinarri gisa erabiltzeko, eta horrela etorkizunean ondasun-mota hauetan izan litezkeen usurpazioen aurrean frogagiri gisa erabili ahal izango da.

3.e. Inbentarioa berrestea

Behin Inbentarioa egin eta Udal-Korporazioak onetsia, urtero berretsi egin beharko da, urtean zehar ondasunek eta eskubideek izan dituzten mota guztietako aldaketen berri islatuz, horretarako erosketak, besterentzeak, trukeak, zerbitzuak e.a. adieraziz. Eskaera hau Udal Korporazioen Ondasunen Arautegiko 33. artikuluan xedatzen da.

Era berean, aipatu artikulua Udal-Korporazioa aldatzen den guztietan inbentarioa egiaztatu egin behar dela dio eta emaitza agirian adierazi behar dela, irteten den Udal-Korporazioaren ardurakoak izan litezkeenak argitzeko akta gehigarria jasotzeko kalterik gabe, eta bere garaian sartzen direnenak alde batera edo akta gehigarriaren kalterik gabe.

Horretarako, egiaztapena Udal berria osatutakoan egingo da, eta Udal Korporazio berriak Inbentarioa onetsi aurretik, Batzorde batek agiri buruzko erizpena ematea egokia litzateke.

Egiaztapenaren emaitza idatziz jasoko da, Idazkariaren ziurtagiriarekin eta alkatearen oniritziarekin.

4. METODOLOGIA ETA LANAREN FORMATOA

4.a. Datu bilketa

Bideen Inbentarioa egin aurretik datuak bildu behar izan dira, eta horretarako, nagusiki, ondoko agirietan oinarritu gara:

- 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoa, bertan garai hartako bideak azaltzen dira bi lerrokin edo lerro bakarrekin, inbentarioan bi lerrokoak bakarrik sartu direlarik.
- Institutu Geografiko Nazionaleko planoak, bertan herri jabariko bideak jarraian bi lerro dituztenak jaso dira.
- Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioa, 1993ko apirilaren 23koa.
- Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioa, ondasunak 2007ko abenduaren 31ko datarekin jasotzen dituenak.
- 1929 urtean egindako udal ondasun higiezinaren planoak.
- 1999. urtean Udaletxeko Obra eta Mantenimendu sailak bizilagunen laguntzarekin egindako arta-lanen planoak, bertan herri jabariko bideak jasotzen dira.
- Erregistro Jabetzan udal ondasunei buruz dauden erregistroko datuak eskatzea
- Plano partikularrak.
- Irungo Arau Subsidiarioetan landalurreko bide sareen proposamen planoak, 1986. urtekoa.
- Landalurreko katastroa.

- Landa-laneko ikerketak. Landa ikuskapen hauen helburua ezagutza, ikuskatutako bide bakoitzaren datuak jasotzea (zabalera, egoera, zoru, etab.) izan da, bere emaitza jarraian zehazten diren deskribapen fitxetan jasoaz.

Landa ikuskapena bizilagunekin erlazionatzea suposatu du, hauek gehienetan nekazari arlokoak izanik, eta agiri honen gaiaren ezagutzaileak. Nagusiki urteetan sartuak dauden biztanleekin hitz egiten saiatu gara, hauek baitira adinagatik bide hauek ezagutzeko aukera dutenak, eta erabili izan dutenak.

4.b. Informazioaren azterketa.

Behin aurreko atalean adierazi dugun informazioa bildu, dauden datuak kontrastatu dira udal ondarea osatuko luketen ondasunak identifikatu ahal izateko eta inbentarioan sartzeko.

Ondasunak eta eskubideak identifikatu ondoren, atal hauek osatu dira:

- PLANOAK: orokora E: 1/10.00 eskalan eta E: 1/5.000eko planoak herri bideen deskribapenean, bere izen eta zenbakiarekin identifikatuta.
- Inbentarioko BIDE BAKOITZAREN FITXA, bere deskribapena, kalifikazio juridikoa eta kasua hala bada, Udalaren aldeko jabetza edo eskubide erreala bermatzen edo abalatzten duen titulua jarritz.

4.c Fitxa tekniko juridikoa

Agiri honek, inbentarioa osatzen duten herri bide eta bidea bakoitzaren banakako fitxa jasoko du.

Fitxa bakoitzean lortu den informazioa jaso da. Bideak banan-banan aztertu dira eta kokapena, ezaugarriak, hedadura, komunikazioak eta euren titularitatearen inguruan izan daitezkeen zalantzak direla-eta, egoera juridikoa ere bildu da.

Fitxa bakoitzean ondoko puntuak jaso ditugu hain zuzen ere:

- HASIERA: Bidea non hasten den adierazten da.
- BUKAERA: Bidea non bukatzen den adierazi.
- SARBIDEA EMATEN ZAIEN ERAIKUNTZAK: Bidea zein erakuntzari sarbidea ematen dion zehazten da.
- BIDEAREN EZAUGARRIAK: Bideak zeharkatzen dituen puntuak eta zati bakoitzaren ezaugarri teknikoak jasotzen dira, datu hauek adieraziz:
 - Luzera, bidearen zorua eta egoera kontuan hartuta.
 - Zabalera
 - zoru mota (hormigoia, asfaltoa, legarra, lurra-harria eta lurra)
 - Egoera, bere erabilgarritasuna kontuan hartuta (ona, irregularra, itxita, erdi itxita eta galdua).
 - Erabilgarritasuna (IG = Mota guztietako ibilgailuak; LI = lur rotako ibilgailuak eta O= oinez
- GUZTIRA DUEN LUZERA: Bidearen eta izanez gero bide-adarren luzera aipatzen da.
- BIDEAREN EGOERA: Atal honetan, laburki, egungo egoera deskribatzen da, eta bertan itxiturak dauden.
- ERABILERA: Bideari ematen zaion erabilera mota jasotzen da.

- **AZPIEGITURAK:** atal honen barruan bidearen zehar aurkitu diren elementuak jaso dira (hodiak, arekak, harri-lubetak, postontziak, etab.), Mantenimendu eta Obra inbentarioaren base datuan daukan zenbakia jarriaz.
- **MUGAKIDEAK:** Atal honetan bidea eskuinetara eta ezkerretara katastroko zein finkarekin mugatzen duen adierazten da. Bidea lursail bat zeharkatzen duenean (ez du berarekin mugatzen) asterisko (*) batekin adierazten da.
- **JABETZA-TITULUA:** Horrelakorik dagoen kasuan jarri egingo da, horren orde, bestela, udal jabetza kreditatzen duten aztarnak adieraziko dira.
- **EROSKETA-DATA:** Jakinez gero, dataren berri emango da eta baita zein tituluren bidez eskuratu zen ere (erosketa, lagapena, e.a.).
- **ZUZENBIDEZKO EGOERA EDO EGOERA JURIDIKOA:** Puntu honetan bidearen inguruko titularitateaz gatazkarik dagoen adieraziko da, alegia bidea Udalarena den zalantzarik jar dezakeenik. Alde horretan dauden aztarnen berri emango da.
- **XEDAPEN JURIDIKOA:** Azpi atal honetan gainerakoetan jasotako informazioaren laburpena egiten da, zuzenbide diagnostikoa eta proposamen juridikoarekin. Aztarnarik balego, aztertuko da bidea berreskuratzeko jarraitu beharreko bidea edo prozedura, hala balegokio ikerketa-espeditentea ireki edo gomendagarriak liratekeen beste jarduera batzuk.

5. ERABILITAKO IRIZPENAK ETA INBENTARIATUTAKO ONDASUNEN ZERRENDA

5.a. Erabilitako irizpenak

Jasotako informazio guzia aztertu ondoren, bide bat inbentarioan sartzeko ondorengo irizpenak jarraitu dira:

- Inguruko biztanleak herri bide bezala onartzea.

- Bideak zeharkatzen dituen finkan mugakideen Jabetza Erregistroko deskribapenean bidearen erreferentziak azaltzea, edo gainerako agiri ofizialetan, jarraian zehazten den lehentasun jarraituz:
 - 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan bi lerrokin azaltzea, edo udalak egindako edozein planoetan azaltzea.
 - Institutu Geografiko Nazionaleko planoak
 - 1999. urtean Udaletxeko Obra eta Mantenamendu sailak, bizilagunen laguntzarekin, egindako arta-lanen planoak
 - Gainerako agiri ofizialak: Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioa, 1993ko apirilaren 23koa; Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioa, ondasunak 2007ko abenduaren 31ko datarekin jasotzen dituenak; ...

- Bidea arta-lan eta eraikitze-lanengatik diru laguntzak jaso izana.

Irizpide hauek kontuan harturik 53 herri bide inbentariatu dira, bakoitzak dituen bide-adarrekin.

5.b. Inbentariatutako ondasunen zerrenda:

01. BARRAKA BIDEA
02. BORDABERRI BIDEA
03. USATEGIETA BIDEA
04. ARASO BIDEA
05. URTXIPI BIDEA
06. MOKOZORROTZ BIDEA
07. ALTZI BIDEA
08. ELATZETA BIDEA
09. OLAKIÑETA BIDEA
10. ALTZUBIDE BIDEA
11. TXENPERENEA BIDEA
12. ALTAMIRA BIDEA
13. EIZAGIRRE BIDEA
14. ELORDITXIPI BIDEA
15. ETXEBERRI BIDEA
16. IBAIETA BIDEA
17. BORDATXURI BIDEA
18. ERNAUTENEA BIDEA
19. SAN MARTZIAL BIDEA
20. BOTTENEA BIDEA
21. BARRILEKU BIDEA
22. URKETEGIBERRI BIDEA
23. ARGIÑENEABERRI BIDEA
24. MUÑO A BIDEA
25. SAN MARTZIALEKO GAINA BIDEA
26. AMASAIN BIDEA
27. FRANTZIUN BIDEA
28. SIUTZ BIDEA
29. BERROA BIDEA
30. AMEZTI BIDEA
31. ANTXOTESARROIA BIDEA
32. ENBIDO BIDEA
33. MAKATZAGA BIDEA
34. ARRIZURRETA BIDEA
35. ARBURU BIDEA
36. ARRAMASTEGI BIDEA
37. MEAKAR BIDEA
38. IDOETA BIDEA
39. ARISTIBURU BIDEA
40. BURKALLEKU BIDEA

41. TRABALEKU BIDEA
42. PIKOKETA BIDEA
43. AITZARTE BIDEA
44. ITURBURU BIDEA
45. TXIRRIPA BIDEA
46. AIAKO HARRIA BIDEA
47. EPERSORO BIDEA
48. SARGIÑOLA BIDEA
49. ANTIGUO ERLAITZ BIDEA
50. SAN ANTON BIDEA
51. ENDARLATSA BIDEA
52. URRISTIBARREN BIDEA
53. AMASAIN – N-121 BIDEA

6.- INBENTARIOAREN ONDORIO NAGUSIAK

Laburtuta, 53 bide inbentariatu dira, linealki 168,3 kilometroko luzera dutenak, eta inbentariatutako bideen laburpena zoruaren arabera eta egoeraren arabera (metroetan) kontuan harturik, jarraian zehaztutakoa egiaztatzen da:

- bide sarearen %29,6ko bideak (49,8 Km) pabimentatuta daudela, hormigoizko eta asfaltoko zorua dutelarik.

- %11,3a (19 Km) legarrezko zorua du.

- %15a (25,3 Km) lurrezko zorua du, bertako edo gehitutako harriarekin.

- %31a (52,2 Km) lurrezko zorua duten bideak dira, egoera onean daudenak, ibilbidea nabaria eta argia dutenak, eta guztiz erabilgarriak. Talde honen barruan bidezidorretan bihurtutako bideak sartu dira, hauek landaretza ez duten bitartean.

- gainerako %13,1a (22 Km) lurrezko zorua duten bideak dira, bere ibilbidea antzeman daitekeena, baina landaretzaz beteta, batzuetan iraganezinetan bihurtuz. Era berean, %13 honen barruan, lur mugimendu edo zuhaitz landaketen ondorioz, ibilbidea galdu duten bideak sartu dira baita poligono industrialetan barruan gelditu direnak ere.

Orokorrean aipatu daiteke, inbentariatu den bide sarea oso ona dela, %87a egoera onean baitago, eta %13a bakarrik ditu garbiketa edo desagertu izanaren arazoa.

Donostian, 2009ko uztailean.

Nekane Azarola Martínez
Abokatua

Conchi Uriarte Seminario

1. ERANSKINA

INBENTARIATUTAKO HERRI-BIDEEN LABURPENA

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOAREN LABURPENEA (m)

BIDEA	HORMIGOIA ASFALTOA	LEGARRA	LURRA+ HARRIA edo LEGARRA	LURRA					GUZTIRA
				ONA	IRREGUL	ERDI ITXITA	ITXITA	GALDUTA	
01	1.003								1.003
02	379	92		424		199			1.094
02.1	255							79	334
02.2	90	70						783	943
03	2.133	439						209	2.781
03.1	32								32
03.2	590							479	1.069
03.3								49	49
04	300			212				243	755
04.1				396					396
04.2	164	122		107					393
05	903								903
05.1	163	564							727
06	371	513		848					1.732
06.1		269		418					687
06.2		200							200
06.3	71	185		791					1.047
07	887	297		133					1.317
07.1		539							539
08	340	76		642		190			1.248
08.1				91					91
09	1.155	165		293		195			1.808
09.1				154				50	204
09.2	351							127	478
09.3	51			177					228
09.4				345					345
10	452		1.367	482					2.301
10.1	513								513
10.2				556					556
10.3	372								372
11	549			124					673
11.1	185								185
12	1.160	140		641					1.941
12.1	207								207
12.2	128			1.419					1.547
12.3	37			329				119	485
13	972								972
13.1	32	58							90
13.2	107							265	372
13.3	82							191	273
14	133			517		83		622	1.355
14.1				111				180	291
15	2.062								2.062
15.1	794								794
15.2	644								644
15.3	516								516
15.4	145		38	236		55			474
15.5	432								432
15.6				254					254
15.7	335			411					746
16	410								410

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOAREN LABURPENEA (m)

BIDEA	HORMIGOIA ASFALTOA	LEGARRA	LURRA+ HARRIA edo LEGARRA	LURRA					GUZTIRA
				ONA	IRREGUL	ERDI ITXITA	ITXITA	GALDUTA	
17	1.508								1.508
18	1.326								1.326
18.1			142	298				165	605
18.2								169	169
19	3.721	537							4.258
19.1	530								530
19.2	135								135
19.3	106			304					410
20	837	512		510					1.859
20.1	180								180
20.2			644	284					928
21	166			1.467					1.633
21.1	155			143		133		215	646
22	709			749	110	97			1.665
22.1	289			320					609
22.2				310			122		432
22.3				538					538
23	1.067								1.067
23.1	91			105		179			375
24	623	134		530		158			1.445
24.1	388							175	563
24.2								221	221
25	262		191	802					1.255
25.1	61								61
26	2.255	77	1.310						3.642
26.1				728					728
26.2				1.434					1.434
26.3				827		147	193	222	1.389
26.4				954					954
27	570			554					1.124
27.1	552	77		171					800
27.2	461					75		132	668
28	928								928
29	285	950		216					1.451
30			589						589
31	318	1.223							1.541
31.1				126		128		134	388
32	581	842	1.382	247		292			3.344
32.1		726		73					799
32.2		174							174
32.3		106	137	787					1.030
32.4				1.112					1.112
32.5				1.338					1.338
32.6				1.588					1.588
33	2.083								2.083
33.1	129			71					200
33.2	175							173	348
34	1.628	774		973		650			4.025
34.1	52	124		274					450
34.2		1.218							1.218
34.3	917								917

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOAREN LABURPENA (m)

BIDEA	HORMIGOIA ASFALTOA	LEGARRA	LURRA+ HARRIA edo LEGARRA	LURRA					GUZTIRA
				ONA	IRREGUL	ERDI ITXITA	ITXITA	GALDUTA	
35	387	1.966		256	190	90	314		3.203
35.1				255					255
35.2				272					272
35.3		468		376					844
35.4	76								76
35.5			731	108	848				1.687
36		477		81		449	181	52	1.240
36.1		132							132
36.2				260	48			67	375
36.3			254			74			328
37	1.309	122	1.146						2.577
37.1				633		433			1.066
37.2				223			57		280
37.3	168	776							944
37.4				263		107	233	201	804
38	718	454		2.486					3.658
38.1	10			182		162			354
38.2			285						285
38.3			269	165					434
38.4				349					349
38.5	106	305							411
38.6			312						312
39	89	184		492					765
39.1		25				56		339	420
39.2								354	354
40	610	396	1.077	48		252	213		2.596
40.1	226							224	450
40.2				57			454		511
40.3				17		1.050	670		1.737
41	549	310	735	456		116		609	2.775
41.1				919					919
41.2		66		307					373
41.3				399					399
41.4						448		60	508
41.5		47	349						396
41.6		184							184
42	607	1.001		314					1.922
42.1				405					405
42.2	50					319		115	484
42.3				226					226
42.4			481						481
42.5	149		307						456
42.6		317		270					587
42.7				326					326
43				477			177	359	1.013
43.1		30			289				319
44		213		653					866
44.1							288		288
45	617								617
45.1			433						433

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOAREN LABURPENA (m)

BIDEA	HORMIGOIA ASFALTOA	LEGARRA	LURRA+ HARRIA edo LEGARRA	LURRA					GUZTIRA	
				ONA	IRREGUL	ERDI ITXITA	ITXITA	GALDUTA		
46				2.152					2.152	
46.1			806						806	
46.2				393					393	
47	10			1.003		389			1.402	
47.1									969	
48				894					894	
49				1.198					1.320	
50	106		3.873						3.979	
50.1			2.853						2.853	
51	1.161	382	825	503		437			3.308	
51.1				1.102					1.102	
51.2	172								172	
52			1.664	1.435		210			3.309	
52.1			1.350						1.350	
52.2			652						652	
52.3			925						925	
53			183	2.338					2.521	
53.1	140			938		224			1.302	
53.2				1.215					1.215	
53.3				235		212		490	558	1.495
TOTAL	49.853	19.058	25.310	52.122	1.988	6.749	4.252	9.031	168.363	
%	29,61	11,32	15,03	30,96	1,18	4,01	2,53	5,36	100,00	

2. ERANSKINA

ARGAZKIEN ZERRENDA

IRUNGO HERRI-BIDEEN ARGAZKIEN ZERRENDA

ARGAZKIA BIDEA DESKRIBAPENA

01	02 01	ITXITA DAGOEN ZATIA
02	02 02	LEGARREZKO ZATIA, TRENBIDEAREN ONDOAN
03	04 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
04	04 01	ZIKINTZEN HASTEN DEN ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
05	06 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BIDEZIDOR
06	06 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BUKAERANTZ
07	06 01	LEGARREZKO ZATIA
08	06 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
09	06 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BIDEZIDOR
10	06 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
11	07 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BUKAERAN
12	07 01	LEGARREZKO ZATIA
13	08 00	ERDI ITXITA DAGOEN LURREZKO ZATIA
14	08 00	ZIKINTZEN HASTEN DEN ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
15	08 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
16	08 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
17	09 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, OLAKIÑETA PAREAN
18	09 00	ERDI ITXITA DAGOEN LURREZKO ZATIA
19	09 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, NABARIA
20	09 02	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA
21	09 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
22	09 04	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BIDEZIDOR
23	10 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
24	10 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA, URUNEKO ERROTATIK GERTU
25	10 00	ONDO DAGOEN AZKEN ZATIA, BELARREZ ESTALIA
26	10 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ILDOEKIN
27	12 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, LEGABIDE ONDOAN
28	12 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ILDOEKIN
29	12 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
30	12 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
31	12 03	ONDO DAGOEN AZKEN ZATIA, BELARREZ ESTALIA
32	12 03	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA
33	13 03	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA, ARRIAGARANEN
34	14 00	ERDI ITXITA DAGOEN LURREZKO ZATIA
35	14 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
36	14 01	GALDUTA DAGOEN ZATIA, NAHIZ ETA NABARIA IZAN
37	14 01	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA, XENDA
38	15 04	ERDI ITXITA DAGOEN LURREZKO ZATIA
39	15 07	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
40	18 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
41	18 01	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
42	19 00	LEGARREZKO ZATIA, ESKALEREKIN
43	19 00	LEGARREZKO ZATIA
44	19 00	LEGARREZKO ZATIA
45	19 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
46	20 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
47	20 00	LEGARREZKO ZATIA
48	20 02	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA
49	20 02	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
50	20 02	LUR ETA HARRIZKO ZATIA, BUKAERAN
51	21 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
52	21 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA

IRUNGO HERRI-BIDEEN ARGAZKIEN ZERRENDA

ARGAZKIA BIDEA DESKRIBAPENA

53	21 01	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
54	21 01	GALDUTA DAGOEN ZATIA (BETELANAK ZAPATAENEAN)
55	22 00	ERDIPURDIKO LURREZKO ZATIA
56	22 00	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
57	22 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
58	22 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BUKAERAN
59	22 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
60	22 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BUKAERAN ITXITA
61	22 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ZUHAITZAK ERORITA
62	24 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BELARREZ ESTALIA
63	24 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
64	24 01	GALDUTA DAGOEN ZATIA
65	24 01	GALDUTA DAGOEN ZATIA
66	25 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
67	25 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA, BUKAERAN
68	26 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA, SAROIABERRITIK GERTU
69	26 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
70	26 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
71	26 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
72	26 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
73	26 03	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
74	26 03	ITXITA DAGOEN ZATIA
75	26 04	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
76	29 00	ZIKINTZEN HASTEN DEN ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
77	29 00	LUR ETA LEGARREZKO ZATIA
78	30 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
79	31 00	LEGARREZKO ZATIA
80	31 01	GALDUTA DAGOEN ZATIA
81	31 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
82	31 01	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
83	32 00	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
84	32 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
85	32 01	LEGARREZKO ZATIA
86	32 02	LEGARREZKO ZATIA, LABEEN PAREAN
87	32 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
88	32 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, XENDA
89	32 04	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
90	32 05	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
91	33 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
92	34 00	LEGARREZKO ZATIA
93	34 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
94	34 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
95	34 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
96	34 02	LEGARREZKO ZATIA, KASKADA ALDERA
97	35 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ILDOEKIN
98	35 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
99	35 00	LEGARREZKO ZATIA
100	35 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
101	35 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
102	35 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
103	35 05	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
104	36 00	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA

IRUNGO HERRI-BIDEEN ARGAZKIEN ZERRENDA

ARGAZKIA BIDEA DESKRIBAPENA

105	36 00	ERDIPURDIKO LEGARREZKO ZATIA, BUKAERANTZ
106	36 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
107	36 02	ERDIPUDIRKO LURREZKO ZATIA
108	36 03	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
109	37 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
110	37 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
111	37 03	LEGARREZKO ZATIA
112	37 04	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
113	38 00	LEGARREZKO ZATIA
114	38 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
115	38 00	BUKAERAN ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, XENDA
116	38 02	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
117	38 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, XENDA
118	38 03	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
119	38 04	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
120	38 06	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
121	39 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
122	39 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
123	39 01	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA
124	39 02	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA
125	40 00	ITXITA DAGOEN ZATIA
126	40 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
127	40 03	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
128	40 03	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA, XENDA
129	41 00	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA, TRABALEKUN
130	41 00	ITXITA DAGOEN ZATIA
131	41 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, TXIRRIPA BORDAN
132	41 00	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA, XENDA
133	41 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
134	41 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
135	41 03	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
136	41 04	OTIAZ ERDI ITXITA DAGOEN LURREZKO ZATIA
137	41 05	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
138	42 00	LEGARREZKO ZATIA
139	42 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
140	42 02	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
141	42 02	GALDUTA DAGOEN ZATIA
142	42 04	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
143	42 05	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, GILTZARRAPOAREKIN ITXITA
144	42 06	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
145	42 07	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
146	43 00	ITXITA DAGOEN ZATIA
147	43 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ILDOEKIN
148	43 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ILDOEKIN
149	44 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ZURRUNBILLO ONDOAN
150	44 00	BELARREZ ESTALIA DAGOEN ZATIA, ITURBURUN
151	44 01	ITXITA DAGOEN ZATIA
152	45 01	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
153	46 00	HARRIZKO ZATIA
154	46 00	GALDUTA DAGOEN LURREZKO ZATIA
155	46 01	LUR ETA HARRIZKO ZATIA, BUKAERAN
156	46 02	TRAMO DE TIERRA BUENO, SENDA

IRUNGO HERRI-BIDEEN ARGAZKIEN ZERRENDA

ARGAZKIA BIDEA DESKRIBAPENA

157	47 00	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
158	47 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, BUKAERAN
159	47 01	GALDUTA DAGOEN ZATIA
160	47 01	BIDEA IXTEN DEN ZATIA
161	48 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, XENDA, MAHAIK DAUDEN TOKIA
162	48 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
163	49 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
164	49 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
165	50 00	LUR ETA LEGARREZKO ZATIA
166	50 00	LEGARREZKO ZATIA HORMIGOIZKOAREN ONDOAN
167	50 01	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
168	51 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
169	51 00	ERDI ITXITA DAGOEN LUR ETA HARRIZKO ZATIA
170	51 00	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
171	51 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, NABARIA ORAINDIK
172	52 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
173	52 00	ITXITA DAGOEN ZATIA
174	52 00	ERDIPURDI DAGOEN LURREZKO ZATIA
175	52 00	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
176	52 01	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
177	52 02	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
178	52 03	LUR ETA HARRIZKO ZATIA
179	53 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
180	53 00	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA, ILDOEKIN
181	53 01	ERDI ITXITA DAGOEN ZATIA
182	53 01	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
183	53 02	ONDO DAGOEN LURREZKO ZATIA
184	53 03	ITXITA DAGOEN ZATIA
185	53 03	ITXITA DAGOEN ZATIA

IRUNGO HERRI-BIDEEN UDAL SAREAREN INBENTARIOA

II. FITXA TEKNIKO JURIDIKOAK

ERABILITAKO HIZTEGIA

BIDEAREN EZAUGARRIAK

HORMIGOIA eta ASFALTOA: bidearen zorua hauetako bi zoladuraren mota bat dutenean

LEGARRA: zabor-legarreko zorua duten bideak.

LURRA-HARRIA: zorua lurrezkoa harriarekin, bertakoa edo gehitua, dutenean.

LURRA: orokorrean lurrezko zorua duten bideak.

ONA: ibilbide argia eta nabaria duten bideak.

IRREGULARRA: zorua hondatua duten bideak

ERDI ITXIA: lurrezko zorua duten bideak, ibilbide argia eta nabariak duten arren, bertako landaretza dela eta ixten hasiak.

ITXITA: lurrezko zorua duten bideak, ibilbidea ikusgarri izan ala ez, iraganezinak direnak bertako landaretzagatik.

GALDUTA: Nekazari eta baso ekoizpenagatik ibilbidea galdu duten bideak.

IG: Mota guztietako ibilgailuak.

LI: lur orotako ibilgailuak

O: oinez

JABETZA TITULUA

1.901eko planoak: 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoari egiten dio erreferentzia, bertan garai hartako bideak marraztuta daude.

IGNko planoak: Institutu Geografiko Nazional egiten dituen planoak dira, bertan herri bideak eta jabetza pribatuko bideak bereizten dira.

Inbentarioa: 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioari erreferentzia egiten dio.

Ondarea: 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioari erreferentzia egiten dio. Bertan udal lursailak epigrafe batean jasotzen dira, eta plano bat du.

Obrak: 1999. urtean Udaletxeko Obra eta Mantenamendu sailak egindako artalaren planoari erreferentzia egiten dio, bertan herri jabariko bideak jasotzen dira. Bide hauek tramuka jasotzen dira, tramu bat bi leku eta bide-gurutzeen artean dagoen zatia izanik.

Eskriturak: bidearen erreferentzia egiten duen Jabetza Erregistroko finka adierazten da.

Plano partikularra: Ingurugiro sailean jasotzen diren jabetza pribatuko planoak dira.

Beste datu batzuk: Atal honetan bidea herri jabariko lursailak zeharkatzen dituen azaltzen da.

MUGAKIDEAK

Bideak mugatzen duen katastroko lursailak adierazten dira. Bidea lursail bat zeharkatzen duenean asterisko (*) batekin adierazten da.

01. BARRAKA BIDEA

HASIERA: N-1 Errepidean, Hondarribiako udalerriko mugan.

BUKAERA: N-1 Errepidea, A-8 autopistaren sarreratik gertu.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Barraka (V-88), Lokaixtegi (V-104), Mendi Lore (V-100), Goizargi (V-101), Enparantxipi (V-98), Enparanberri (V-99), Enparanzahar (V-103), Zabaleta (V-97) eta Aldanondo (V-96).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - BUKAERA	1.003 m	2,8 - 4,0 m	Hormigoia	Ona	IG

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.003 m.

BIDEAREN EGOERA: Hormigoizko bide hau egoera onean dago.

ERABILERA: Bide hau inguruko baserri eta eraikuntzetara joateko erabiltzen da.

AZPIEGITURAK:

Kutxatilak (1238, 1237)

Arekak (2386, 2388)

Zaborrontzi (2394)

Postontzi (2393)

Seinalizazioa: Gehieneko abiadura, gehieneko pisua, bide-estugune – Bukaera eta udal mugariaren ondoan (2390, 2391, 2392)

Elementu aipagarriak: udal mugarria (1234)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 1. Poligonoa: 1, 2*, 14*, 3, 4, 5 Lursailak.
- Ezkerretara: Hondarribiako udal muga eta 1. Poligonoa: 14*, 15, 19, 20, 91, 12 Lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: marraztuta azaltzen da.

IGNko Planoa: herri bide bezala azaltzen da

Inbentarioa: 2.282 bidearekin bat dator.

Obrak: 21 eta 20 tramuekin bat dator.

Eskriturak: 1.654 finkan bidearen erreferentziak aurkitu dira.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko planoan azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Aipatu den bezala ez da bide honen jabetza titulurik ageri, baina antzina antzinatik udalarena da eta hainbat agiritan azaltzen da, adibidez 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionalako Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen

inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan eta finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean.

Gainera, bidea inguruko hainbat baserri eta eraikuntzetara joateko erabiltzen da, argi egonik erabilera eta zerbitzu publikokoa dela. Hori dela eta, bidea inbentarioan sartzea aski da, formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideak, edozein udal ondasunek behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

02. BORDABERRI BIDEA

HASIERA: N-1 Errepidea, Gaintzurizketako gaina.

BUKAERA: trenbideak, industrialde berria.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Zabaletaberi (V-91), Olaizola enea (V-90), Altza (V-108), etxetxo bat (V-92) eta Bordaberri (V-93).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
ERREPIDEA - ZABALETABERRI	166 m	2,8 m	Hormigoia	Ona	IG
ZABALETABERRI - ETXETXOA	92 m	2,2 m	Legarra	Ona	IG
	74 m	2,2 m	Lurra	Ona	O
	350 m	--	Lurra	Galduta	O
ETXETXOA - BORDABERRI	213 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	199 m	1,5 m	Lurra	Erdi itxia	O
715 M INDUSTRIALGUNEAREN ERAIKUNTZAREKIN OKUPATUTA					
BIDEA GUZTIRA	1.809 m				
+ 02.1 BIDE-ADARRA: ALTZA	255 m	3,7 m	Hormigoia	Ona	IG
	79 m	--	Lurra	Galduta	O
02.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	334 m				
+ 02.2 BIDE-ADARRA: N-1ekin LOTURA	90 m	3,5 m	Asfaltoa	Ona	IG
	68 m	--	Lurra	Galduta	O
	70 m	2,0 m	Legarra	Ona	O
02.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	228 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 2.371 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusiaren hormigoizko eta legarrezko zatiak egoera onean daude, lurrezko zorua dutenak ordea, bertan dagoen landaretza dela-eta itxita daude, eta zati bat gainera galdu egin da betelan bat egin dutelako. Gainera galdu den zatia hasten den lekuan, igarotzea galarazten duen itxitura bat dago.

Altza bide-adarra, azken zatia izan ezik sastrakaz beteta dagoela, gainerako zatiak egoera onean ditu.

N-1ekin lotura egiten duen bide-adarra, N-I Errepidea zabaltzeko aldatu egin da, lehen eta azken zatia egoera onean ditu.

ERABILERA: Bide nagusiaren hormigoizko lehen zatiak eta Altza bide-adarra inguruko lursailletara joateko erabiltzen da. Lurrezko zatiak ordea, gaur egun ez dira erabiltzen.

AZPIEGITURAK

Arekak (1221)

Postontzi – Hasiera (2396)

Elementu berezia: errotako harriak (1228)

Itxitura (2411)

+ 02.1 Bide-adarra - Altza

Areka (1225)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 16, 22, 20, 13*, 8*, 124, 125, 122 Lursailak, eta industrialgune berria.
- Ezkerretara: 13. Poligonoa: 160, 13*, 8*, 24 Lursailak eta industrialgune berria.

+ 02.1 Bide-adarra - Altza

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 160, 11, 17*, 170*, 17* Lursailak
- Ezkerretara: 13. Poligonoa: 10, 17*, 170*, 17* Lursailak

+ 02.2 Bide-adarra– N-1eko lotura

- Eskuinera: 13. Poligonoa 183 Lursaila eta hiri-lurra
- Ezkerretara: 13. Poligonoa 126 Lursaila eta hiri-lurra

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide nagusia bai bide-adarrak azaltzen dira.

IGNko Planoa: : Bai bide nagusia bai bide-adarrak herri bide bezala azaltzen dira.

Inbentarioa: Bide nagusiaren lehen zatia ez da azaltzen eta gainerakoa 2.279 eta 2.280 bideekin bat dator. Bide-adarrak 2.280 bidearekin bat dator.

Ondarea: 147 eta 161 epigrafeetako planoetan bide nagusia herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: bide nagusia 16 eta 18 tramuekin bat dator, 02.1 bide-adarra 17. tramuarekin eta 02.2 bide-adarra 321 tramuarekin.

Eskriturak: bide nagusiaren erreferentziak 22.492 finkan aurkitu dira.

Jabetzako planoak: Enparan-txiki baserriko planoan bide nagusia eta 02.2 bide-adarra “camino vecinal” bezala azaltzen da, eta 02.1 bide-adarra “camino real” bezala.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko planoan azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Bide honek inguruari zerbitzua ematen dio, eta ondorioz, erabilera eta zerbitzu publikokoa da. Gainera, bere izatea 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan eta finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean jasotzen da; eta zati batzuk ere, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan eta 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan.

Ondorioz, ondasuna inbentarioan sartzeari aski da, formalki udal ondarrera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: “Bidearen egoera” atalean aipatu den bezala, bide nagusiaren zati bat betelan bat egin denez galdu egin da, ondorioz udalak ikuspuntu juridikotik begiratuta, eta Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera, ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa eman beharko luke, lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- a) Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- b) Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- c) Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere

eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.

- d) Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- e) Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- f) Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- g) Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Gainera, bidean – bidea galtzen den lekuan – igarotzea galarazten duen itxitura bat dago, hori dela eta, hau ireki egin beharko litzateke, igarotzea galarazten ez duen beste itxitura batengatik ordezkaturik. Sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Bestalde, bai bide nagusian bai bide-adarretan zati batzuk sastrakaz beteta daude, hori dela eta, zati hauek garbitzea eta desbrozatzeko beharrezkoa da, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Azkenik aipatu, bidearen gainerako zatiak edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baina gehiago ez duela behar.

03. USATEGIETA BIDEA

HASIERA: Irun, Oiartzun eta Lezoko udalerrietako muga, Usategieta baserria.

BUKAERA: N-1 Errepidea, Loiola.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Usategieta (V-95), Erain Ikastetxea (V-94), Zaborteia (V-116), Teilagorri (V-75), Arantxa (V-78), Etxea (V-74B), Araso (V-79), Sasikoetxea (V-77), Sasilagun (V-76), Mazkartenea (V-72), Ugarte (V-68), Gure Atsegina (V-83) eta Loiola (V-71).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA – ERAIN IKASTETXEA	461 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
IKASTETXEA - 03.2 BIDE-ADARRA GURUTZEA	439 m	3,0 m	Legarra	Ona	LI
BIDEGURUTZEA - SASIKOETXEA	1.098 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
SASIKOETXEA - TRENBIDEA	209 m	INDUSTRIALDEKO ERAIKUNTZAREKIN HARTUA			
TRENBIDEA - BUKAERA	574 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	2.781 m				
+ 03.1 BIDE-ADARRA: LEZO	32 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
+ 03.2 BIDE-ADARRA: MAZUOLA					
03 BIDEA - TEILAGORRI	391 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
TEILAGORRI – TRENBIDEA	479 m	INDUSTRIALDEKO ERAIKUNTZAREKIN HARTUA			
TRENBIDEA – BUKAERA	199 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
03.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	1.069 m				
+ 03.3 BIDE-ADARRA: SASIKOETXEA	49 M	INDUSTRIALDEKO ERAIKUNTZAREKIN HARTUA			

GUZTIRA DUEN LUZERA: 3.931 m.

BIDEAREN EGOERA: Bai bide nagusia bai bide-adarrak egoera onean daude, bide nagusiaren zati bat, Mazuolara doan bide-adarra eta Sasikotxea bide-adarraren zati bat industrialde berriaren eraikuntzarekin okupatuak izan diren arren.

ERABILERA: Bai bide nagusia bai bide-adarrak inguruko baserri eta lursailletara joateko erabiltzen dira. Gainera, bide nagusia Gaintxurizketa Gaina eta Oiartzungo Gurutze auzora iristeko ere erabiltzen da.

AZPIEGITURAK

Hodiak (1173, 1180, 1204, 1203)

Kutxatilak (1174)

Zubia (1212)

Seinalizazioa: gehieneko abiadura (2422, 2421)

Elementu berezia: udal mugarrria (1175), Hasiera.

Trenbideko tunela (1204, 1203)

Postontzi (2224)

+ 03.2 Bide-adarra - Mazuola

Renfeko zubia (1214)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 3, 1, 4*, 174, 7, 5, 33*, 29, 152, 50* Lursailak, industrialdea, 169, 38, 75, 81*, 94* Lursailak

- Ezkerretara: Oiartzungo udalerria; 13. Poligonoa: 2, 4*, 181, 20, 8, 144, 31, 33*, 36, 150, 151, 50*, 168, 173, 37 Lursailak, industrialdea, 74 lursaila, Errepideak, 81*, 94* lursailak

+ 03.1 Bide-adarra - Lezo

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 2* Lursaila.
- Ezkerretara: 13. Poligonoa: 2* Lursaila.

+ 03.2 Bide-adarra - Mazuola

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 144*, 12*, 6*, 125*, 26, 180 Lursailak, industrialde berria, 74* lursaila.
- Ezkerretara: 13. Poligonoa: 144*, 12*, 6*, 125*, 179 Lursailak, industrialde berria, 74* Lursaila.

+ 03.3 Bide-adarra - Sasikoetxea: industrialde berriaren barruan.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bide nagusia eta 03.2 bide-adarra oso antzerako ibilbidearekin marraztuta daude, 03.1 bide-adarra ez da azaltzen, eta 03.3 bide-adarra ordea bai.

IGNko Planoa: bai bide nagusia bai bide-adarrak herri bide bezala azaltzen dira.

Inbentarioa: bide nagusia 2.283, 2.284 eta 2.287 bideekin bat dator, 03.2 bide-adarra 2.285 bidearekin, 03.3 bide-adarra Araso-Urtxipi lotzen dituen bidearekin, eta 03.1 ez da azaltzen.

Ondarea: bide nagusia 161 epigrafean azaltzen da, baina plano honetan bidea marraztuta azaltzen den arren, ez du adierazten zer bide mota den. Eta 148 epigrafean ordea, herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: bide nagusia 1, 3, 4, 5, 9, 10, 11, 12, eta 342 tramuekin bat dator, 03.2 bide-adarra 2 tramuarekin, 03.2 bide-adarra 15, 14 eta 13 tramuekin eta 03.3 bide-adarra 301 tramuarekin.

Eskriturak: bide nagusiaren erreferentziak Jabetza Erregistroko 40.523, 2.937 eta 850 finketan aurkitu dira.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezaguna, baina antzina-antzinatik Irungo udalarena da, 1901. urteko udal planoan bai bide nagusia bai 2 eta 3 bide-adarrak azaltzen direlarik.

EGOERA JURIDIKOA: Ez dago konstantziarik ez bide nagusi ez bide-adarren jabetza tituluarena, baina aipatu den bezala, bai bata eta bai besteak, hainbat agerietan azaltzen dira.

Bestalde, bide nagusia inguruko komunikabide garrantzitsua da, inguruko baserri eta lursailera joateko erabiltzeaz gain, Gaintzurizketako gaina eta Oiartzungo Gurutze auzora joateko erabiltzen baita.

Hori dela eta, bide hau eta bere bide-adarrak inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideak, edozein udal ondasunek behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

04. ARASO BIDEA

HASIERA: Usategieta bidea (03. zkia.), Arantxa.

BUKAERA: Txingudi industrialdea.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Araso (V-79), Etxola (V-81).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - ARASO	278 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
ARASO - BUKAERA	212 m	1,8 m	Lurra	Ona	LI
	243 m. INDUSTRIALDEKO ERAIKUNTZAREKIN HARTUA				
	22 m	3,5 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	755 m				
+ 04.1 BIDE-ADARRA: REGATA	396 m	1,8 - 2,3 m	Lurra	Ona	LI
+ 04.2 BIDE-ADARRA: SANJUANETXEKO LARREA	85 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	122 m	2,5 m	Legarra	Ona	IG
	79 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	107 m	1,5 m	Lurra	Ona	O
04.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	393 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.544 m.

BIDEAREN EGOERA: Bai bide nagusia bai bide-adarrak egoera onean daude, baina 04.1 bide-adarra, bertan dagoen landaretzaren ondorioz zikintzen hasia da.

Bestalde, Sanjuanetxekora doan bide-adarrean, giltzarrapoz itxita dagoen itxitura bat dago, bertatik igarotzea galarazten duena.

ERABILERA: Bide hau inguruko eraikuntza eta lursailalara joateko erabiltzen da, eta Sanjuanetxeko Larreara doan bide-adarra udalerriko mugarrien ikuskapena egiteko.

AZPIEGITURAK

Hodiak (2233, 2234)

+ 04.1 Bide-adarra - Erreka

Harri-lubeta (2437)

+ 04.2 Bide-adarra - Sanjuanetxe

Itxitura (2283)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 152*, 29*, 43*, 45* Lursailak eta hiri-lurrak.
- Ezkerretara: 13. Poligonoa: 152*, 29*, 43*, 45* Lursailak, eta hiri-lurrak.

+ Bide-adarra 04.1 - Erreka

- Eskuinera: 13. Poligonoa: 29, 30* Lursailak
- Ezkerretara: 13. Poligonoa: 43, 30* Lursailak

+ Bide-adarra 04.2 - Sanjuanetxe

- Eskuinera: industrialdea, 13. Poligonoa: 54*, 48*, 47* Lursailak

- Ezkerretara: industrialdea, 13. Poligonoa: 54*, 48*, 47* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bide nagusia eta 04.1 eta 04.2 bide-adarrak marraztuta daude.

IGNko Planoa: bide nagusia baserriraino herri bide bezala azaltzen da, ia 04.1 bide-adar osoa herri bidea da, eta 04.2 bide-adar guztia herri bide bezala azaltzen da.

Inbentarioa: bide nagusiak ez dauka zenbakirik baina bai izena, 04.1 bide-adarra ez da azaltzen eta 04.2 bide-adarra lerro lodi bat bezala azaltzen da.

Ondarea: bide nagusia 149 epigrafeko planoan azaltzen da, Urtxipi bidea izenarekin eta zerbitzu bide bezala; eta 04.1 bide-adarra herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: Bide nagusia 6, 7, 302 eta 307 tramuekin bat dator, 04.1 bide-adarra 8 tramuarekin, eta 04.2 bide-adarra 308 tramuarekin.

ESKURATZE DATA: Bide honen eta bere bide-adarren eskuratze data ez da ezaguna, baina antzina-antzinatik Irungo udalarena da, eta 1901. urteko udalerriko planoan azaltzen da.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau erabilera eta zerbitzu publikokoa da, inguruko eraikuntza eta lursaila joateko erabiltzen baita. Gainera, "jabetza titulua" atalean aipatu den bezala, bide honen eta bere bide-adarren erreferentziak agiri desberdinetan aurkitu genezake, besteak beste, Irungo udalak aurretik egin dituen inbentarioetan.

Hori dela eta, bide hau inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Aipatu den bezala, Errekara doan 04.1 bide-adarra, bertan dagoen landaretza dela-eta zikintzen hasi da, hori dela eta, garbitzea gomendatzen da, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bestalde, Sanjuanetxeko Larrea bide-adarrean igarotzea galarazten duen galtzarrapotz itxitako itxitura bat dago, hori dela eta, hau ireki egin beharko litzateke, igarotzea galarazten ez duen beste itxitura batengatik ordezkatur. Sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- a.- Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- b.- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- c.- Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.

- d.- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- e.- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- f.- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- g.- Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Bide nagusia ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

05. URTXIPI BIDEA

HASIERA: Txingudi industrialdea.

BUKAERA: Usategieta bidea (03. zkia), Loiola.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Hamaika izerdi (V-67), Endaietan (V-52), Berraur etxea (V-53), Urruzenea (V-54) eta Egia bide (V-55).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA – OIANTZABALETA IND.	741 m	3,5 m	Hormigoia	Ona	IG
INDUSTRIALDEA - BUKAERA	116 m	3,5 m	Asfaltoa	Ona	IG
	46 m	4,2 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	903 m				
+ 05.1BIDE-ADARRA: ENDAIETAN					
HASIERA - ENDAIETAN	114 m	3,2 m	Legarra	Ona	IG
	24 m	3,2 m	Hormigoia	Irregularra	IG
	450 m	2,2 - 2,7 m	Legarra	Ona	IG
ENDAIETAN - BUKAERA	139 m	4,0 m	Asfaltoa	Ona	IG
05.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	727 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.630 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide hau egoera onean dago.

ERABILERA: Gaur egun bide hau eta bere bide-adarra inguruko eraikuntzetara joateko erabiltzen da. Lehen ordea, mendi ingurura joateko zegoen bide nagusia zen, baina autopista eraiki zenekin bere ibilbidea aldatu egin da, eta zati bat GI-2134 Errepidearengatik, Bentasetik pasata Oiartzunetik Hondarribira doana, ordezkatua.

AZPIEGITURAK

Kutxatilak (2277, 2276, 2275, 2270, 2269, 2268, 2267, 2266, 2263, 2262, 2261, 2260, 2259, 2258, 2257, 2256, 2255, 2254, 2253, 2252, 2251, 2250).

Zubia (2243)

Arekak (2273, 2264, 2249)

Hodia (1294)

+ 05.1 Bide-adarra - Endaietan

Kutxatilak (1299, 1298, 1297, 1296, 1295)

A-8 autopistako zubia (1300)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: Txingudi industrialdea, Autopista, 13. Poligonoa: 94 Lursaila.
- Ezkerretara: industrialde berria, 13. Poligonoa: 41 Lursaila, Oiantzabaleta industrialdea, 13. Poligonoa: 80, 81 lursailak.

+ 05.1 Bide-adarra - Endaietan

- Eskuinera: Autopista, 13. Poligonoa: 70, 57, 58 Lursailak.
- Ezkerretara: Autopista, 13. Poligonoa: 171, 91, 88 Lursailak, 12. Poligonoa: 152, 129 Lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bide nagusia ibilbide zeharo desberdinarekin azaltzen da, eta 05.1 bide-adarra ordea, Urruzeneara doan zatia bakarrik azaltzen da.

IGNko Planoa: Bai bide-nagusia bai 05.1 bide-adarra herri bide bezala azaltzen dira, baina bide nagusia ibilbide desberdin batekin.

Inbentarioa: bide nagusia Ierro lodi batekin azaltzen da, Urtxipira doan bidea izenarekin eta 2.289 bidea bezala. 05.1 bide-adarra 2292 bidea bezala azaltzen da, Urtxipitik Semezarrenera doana.

Obrak: bide nagusia 306, 305 eta 304 tramuekin bat dator, eta bide-adarra 35 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza erregistroko 48.168 finkan bide-adarraren erreferentzia aurkitu da "camino vecinal" bezala.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da.

EGOERA JURIDIKOA: Kasu honetan 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan eta Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan bidearen ibilbidea ez dator bat gaur egungoarekin, baina bai ordea, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan eta 1999. urtean udalak egindako artalaren planoan azaltzen dena.

Gainera, bide hau inguruko eraikuntza eta lursailera joateko erabiltzen da, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik. Hori dela eta bide hau inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

Bide-adarra ordea, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako artalaren planoan eta finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean gaur egun duen ibilbidearekin azaltzen da.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideak, edozein udal ondasunek behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

06. MOKOZORROTZ BIDEA

HASIERA: Oiartzundik Bentasera doan GI-2134 Errepidea, Bidaurren.

BUKAERA: Altzi bidea (07. zkia.)

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Antojuko errota (V-39), Mintegi (V-40), Moko zorrotz (V-41), Etxeberri (V-105), Etxeberri goikoa (V-109), Etxeberri goiko borda (V-115), Etxea (V-42) eta San Maximilianoko meategia.

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
ERREPIDEA - ANTOJU ERROTA	207 m	4,5 m	Hormigoia	Ona	IG
ANTOJUKO ERROTA - ZATIKAPENA	292 m	3,7 m	Legarra	Ona	IG
ZATIKAPENA - MOKOZORROTZ	164 m	3,2 m	Hormigoia	Ona	IG
MOKOZORROTZ - MEHATEGIAK BIDEAD.	221 m	3,0 m	Legarra	Ona	IG
BIDE-ADARRA - BUKAERA	373 m	1,2 - 2,0 m	Lurra	Ona	O
	122 m	< 1 m	Lurra	Ona	O
	353 m	2,0 m	Lurra	Ona	LI
BIDEA GUZTIRA	1.732 m				
+ 06.1 BIDE-ADARRA: ERREPIDEA	269 m	1,8 - 2,2 m	Legarra	Ona	IG
	418 m	1,5 m	Lurra	Ona	LI
06.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	687 m				
+ 06.2 BIDE-ADARRA: ETXEBERRI	200 m	2,6 - 3,0 m	Legarra	Ona	IG
+ 06.3 BIDE-ADARRA: MEHATEGIAK	185 m	2,7 - 3,3 m	Legarra	Ona	IG

	164 m	1,5 m	Lurra	Ona	LI
	259 m	< 1 m	Lurra	Ona	O
	368 m	1,2 - 2,0 m	Lurra	Ona	O
	71 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
06.3 BIDE-ADARRA GUZTIRA	1.047 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 3.666 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia orokorrean egoera onean dago, bere ibilbidea argia eta nabaria izanik, baina Altziazpi aldean, lurrezko zati bat dago, bidezidor batean bihurtu dena.

Errepidera doan bide-adarra eta Etxeberrikoa egoera onean daude.

San Maximilianoko Meategira doan bide-adarra, etxeraino egoera onean dago, baina hortik aurrera eta erreka gurutzatu arte, bidezidor batean bihurtu da, eta erreka gurutzatu ondoren, berriro ere bere trazatua berreskuratzen du.

Bai bide-nagusian bai Meategietara doan bide-adarrean hainbat itxitura daude, baina hauek ez dute igarotzea galarazten.

ERABILERA: Bide nagusia inguru honetako baserrietara joateko erabiltzen da, baita ere Oiartzungo udalerrira joateko; eta bide-adarrak berriz, lursailletara sartzeko.

AZPIEGITURAK

Hodia (1280)

Kutxatilak (1258).

Autopistaren zubia (1279)

Zubia (1276)

Harri-lubetak (1259, 1260)

Ur-biltegia (2451)

+ 06.1 Bide-adarra - Errepidea

Zubia - uharka (1287)

Harri-lubeta (1285)

Usurbidea (1290)

+ 06.2 Bide-adarra - Etxeberri

Zubia (1273)

+ 06.3 Bide-adarra: Meategiak

Zubia (2443)

Uharka (2444)

Itxitura (2445, 2446, 2447)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 12. Poligonoa: 17 Lursaila, Autopista, 12. Poligonoa: 28*, 26, 41*, 42*, 113*, 54*, 56, 127, 109 Lursailak.
- Ezkerretara: Autopista, 12. Poligonoa: 140, 146, 28*, 27, 41*, 42*, 113*, 54*, 57, 111, 132 Lursailak.

+ 06.1 Bide-adarra - Errepidea

- Eskuinera: 12. Poligonoa: 28, 29, 1*, 30, 1*, 19*, 18* Lursailak
- Ezkerretara: 12. Poligonoa: 146, 1*, 19*, 5, 18* Lursailak

+ 06.2 Bide-adarra - Etxeberri

- Eskuinera: 12. Poligonoa: 41*, 26, 150*, 131* Lursailak, Autopista.
- Ezkerretara: 12. Poligonoa: 41*, 148, 150*, 131* Lursailak

+ 06.3 Bide-adarra - Meategiak

- Eskuinera: 12. Poligonoa: 142*, 55, 51*, 59*, 92*, 93*, 96*, 50*, 49*, 47*, 55, 151 Lursailak.
- Ezkerretara: 12. Poligonoa: 142*, 51*, 59*, 92*, 93*, 96*, 50*, 49*, 47*, 143 Lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bide nagusia batzuetan ibilbide desberdinarekin azaltzen da, eta zati batzuk ez dira azaltzen ere. 06.1 eta 06.2 bide-adarren ibilbide osoa azaltzen da, eta 06.3 bide-adarra dena, erreka aldeko zatia izan ezik.

IGNko Planoa: Bide nagusia meategietaraino herri bide bezala azaltzen da, 06.1 eta 06.2 bide-adarren ibilbide osoa herri bide bezala, eta 06.3 bide-adarra, erreka aldea izan ezik, herri bidea bezala.

Inbentarioa: Bide nagusia 2.294 eta 2.297 bideak bezala azaltzen da, 06.1 bide-adarra, Antojuko errota 2.295 bidea bezala, 06.2 bide-adarra, loturako 2.293 bidea bezala; eta 06.3 bide-adarra 2.294 bidea bezala.

Obrak: Bide nagusia 33, 32, 27, 30 eta 25 tramuekin bat dator, 06.1 bide-adarra 34 tramuarekin; 06.2 bide-adarra 31 tramuarekin eta 06.3 bide-adarra 28 eta 29 tramuekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 27.948 finkan bide nagusiaren erreferentziak aurkitu dira "camino vecinal" bezala.

06.1 bide-adarrean, 43.902 eta 430 finketan aurkitu da "camino a las minas" bezala. 06.2 bide-adarrean, 34.958 finkan "camino carretil público" bezala eta 45.092 finkan "camino vecinal" bezala.

Jabetzako planoak: Mina-alde lursaileko planoan bide nagusia eta 06.2 eta 06.3 bide-adarrak "camino vecinal" bezala azaltzen dira.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau Jabetza Erregistroko hainbat finken deskripzioetan azaltzen da, eta baita ere, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan.

Bestalde, bai bide nagusia bai bide-adarrak inguruko lursail eta baserrietarako joateko erabiltzen dira, eta bide nagusiak, gainera, Oartzungo udalerriarekin komunikatzen du. Argia egonik, erabilera eta zerbitzu publikokoak direla.

Hori dela eta, udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasuneko zati osatzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Bide nagusia eta bide-adarrak nagusiki egoera onean daude, eta edozein ondasunek eskatzen duen arta-lana egitea baina ez dute behar. Baina zati batzuk bidezidor batean bihurtu dira, hori dela eta, zati hauek garbitzea eta trazatua markatzea gomendatzen da, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

07. ALTZI BIDEA

HASIERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Ebanjelietaren parean.

BUKAERA: Oiartzungo udalerriko muga, Altzi baserria.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
ERREPIDEA - ZABORTEGIKO BIDE-ADARRA	206 m	3,7 m	Legarra	Ona	IG
BIDE-ADARRA - BUKAERA	887 m	2,8 - 3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	91 m	4,6 m	Legarra	Ona	IG
	133 m	2,4 m	Lurra	Ona	LI
BIDEA GUZTIRA	1.317 m				
+ 07.1 BIDE-ADARRA: ZABORTEGIA	539 m	3,7 m	Legarra	Ona	IG

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.856 m.

BIDEAREN EGOERA: Bai bide nagusia bai bide-adarra egoera onean daude.

ERABILERA: Bide nagusia inguruko lursailen sarbide bezala eta Oiartzungo udalerrira joateko erabiltzen da. Bide-adarra lursailen sarbide bezala erabiltzen da, eta Mokokorrotz bidearen lotura bezala.

AZPIEGITURAK

+ 07.1 Bide-adarra - Zabortegia

Areka (1251, 2450)

Hodia (1252)

Kutxatilak (1253, 1254, 1255)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 12. Poligonoa: 34*, 23, 44*, 113*, 57, 112, 132*, 109* Lursailak
- Ezkerretara: 12. Poligonoa: 34*, 43, 44*, 113*, 149, 116, 135, 134, 107, 132*, 61, 109* Lursailak

+ 07.1 Bide-adarra - Zabortegia

- Eskuinera: 12. Poligonoa: 23*, 34, 33, 27* Lursailak
- Ezkerretara: 12. Poligonoa: 23*, 44, 27* Lursailak

JABETZA TITULUA: 07.1 bide-adarraren kasuan, udaletxean lursailen erosketari buruzko espediente bat dago, baina bide nagusiaren inguruko jabetza titulurik ez dago, hau jarraian zehazten diren agirietan jasotzen den arren:

1901eko Planoa: Bide nagusia gutxi gorabehera ibilbide berdinarekin azaltzen da, eta 07.1 bide-adarra ibilbide desberdinarekin.

IGNko Planoa: Bai bide nagusia bai bide-adarra herri bide bezala azaltzen dira.

Inbentarioa: Bide nagusia 2298 bidea, Altzu bidea, bezala azaltzen da eta 07.1 bide-adarra 2296 bidea bezala, zabortegira doana.

Ondarea: 07.1 bide-adarra 229 epigrafean lurren salerosketa bezala jasotzen da.

Obrak: Bide nagusia 22, 23 eta 24 tramuekin bat dator eta 07.1 bide-adarra 26 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 22.206 eta 22.205 finketan bide nagusiaren erreferentziak aurkitu dira “camino carretil” bezala eta 6.053 finkan 07.1 bide-adarrarena.

Beste datu batzuk: 07.1 bide-adarraren espediente bat dago.

ESKURATZE DATA: Ez da ezagutzen bide nagusiaren eskuratze data, baina antzina-antzinatik Irungo udalarena da. Bide-adarra ordea, 1976. urtean eskuratu zen, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioko 229 epigrafean adierazten den bezala.

EGOERA JURIDIKOA: 07.1 bide-adarra udalaren jabetzako da, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan ageri den bezala, bide nagusiaren kasuan ordea, ez dago jabetza tituluaren konstantziarik, baina hainbat agiritan azaltzen da, adibidez plano zaharrak, aurreko inbentarioak eta finka mugakideen Jabetza Erregistroko deskribapena. Gainera, jasaten duen erabilera eta zerbitzu publikokoa dela adierazteko nahiko frogak da.

Ondorioz, bide hau inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetan aztergai den bidearen inguruko gomendioa bakarra, edozein udal-ondasunek eskatzen duten arta egitea da.

08. ELATZETA BIDEA

HASIERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Elenea.

BUKAERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Ebanjelieta.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Ongi etorri (V-20), Gure txokoa (V-21), Anai arte (V-22), Kuttun etxea (V-23), Elatzeta (V-24), Dorretzarpe (V-25), Lagun artean (V-26), Dorretzar eta Ebanjelieta (V-19).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
ERREPIDEA - LAGUN ARTEA	279 m	2,7 m	Hormigoia	Ona	IG
LAGUN ARTEA - 08.1 BIDE-ADARRA	40 m	1,6 m	Lurra	Ona	O
	190 m	< 1,0 m	Lurra	Erdi itxia	O
	294 m	2,0 m	Lurra	Ona	LI
08.1 BIDE-ADARRA - EBANJELIETA	308 m	2,5 m	Lurra	Ona	LI
	76 m	2,5 m	Legarra	Ona	IG
EBANJELIETA - BUKAERA	61 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	1.248 m				
+ 08.1 BIDE-ADARRA: DORRETZAR	91 m	2,0 m	Lurra	Ona	LI

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.339 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia orokorrean egoera onean dago, eta ibilbide argia eta nabaria du, baina lurrezko zorua duen zati bat bidezidor batean bihurtu da eta beste bat ia ez da ikusten.

Dorretzarrera doan bide-adarra ordea, lurrezko zorua duen arren, egoera onean dago.

ERABILERA: Bide nagusia inguruko eraikuntza eta lursailletara joateko erabiltzen da, eta bide-adarra lursailletara eta dorretzarrera joateko.

AZPIEGITURAK: Ez dago bat ere ez.

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 29*, 3*, 232, 233, 234, 54, 95*, 54*, 22, 21, 54*, 262*, 231, 1* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 29*, 3*, 238, 6, 226, 95*, 54*, 262*, 1* Lursailak

+ 08.1 Bide-adarra - Dorretzar

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 54* Lursaila
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 54* Lursaila

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bide nagusitik bakarrik azken zatia azaltzen da, eta 08.1 bide-adarraren ibilbide osoa ere ez da azaltzen.

IGNko Planoa: Bide nagusia, Dorretzarrera doan bide-adarretik Ebanjelieta pareraino, herri bide bezala azaltzen da, eta 08.1 bide-adarra osoa herri bide bezala.

Inbentarioa: 2.303 bidea bide nagusiaren azken zatia jasotzen du eta 08.1 bide-adarra ibilbide desberdin batekin azaltzen da.

Ondarea: Bide nagusia 234 epigrafeko planoan, Ebanjelieta inguruko herri bide bezala jasotzen da.

Obrak: Bide nagusia 36 eta 37 tramuekin bat dator, eta 08.1 bide-adarra 322 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 18.121 finkan bide nagusiaren erreferentziak aurkitu dira "camino público" bezala.

Beste datu batzuk: Bide nagusiaren zati handi bat herri lurretik igarotzen da, eta 08.1 bide-adarra osoa ere.

ESKURATZE DATA: Bide honen eta bere bide-adarraren eskuratze data ez da ezaguna, baina antzina-antzinatik Irungo udalarena da

EGOERA JURIDIKOA: Bide nagusia eta bide-adarra inguruko lursailera eta eraikuntzetara joateko erabiltzen da, argia egonik erabilera eta zerbitzu publikokoa dela. Gainera, "jabetza titulua" atalean aipatu den bezala, bide honen eta bere bide-nagusiaren izatea hainbat agiritan azaltzen da, eta bere ibilbidea udal jabariko lurretik egiten du.

Ondorioz, bidea inbentarioan sartzeari aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Bide nagusiaren lurrezko zati bat bidezidor batean bihurtu da, eta beste zati bat ezin da bereiztu. Hori dela eta, zati hauek garbitzea beharrezkoa da, galdu duten zatia berreskuratuz, horrela bere trazatua galtzea eta aurrerantzean usurpatua izatea galaraziz.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bide nagusiaren gainerako zatiak eta bide-adarra ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

09. OLAKIÑETA BIDEA

HASIERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, 08 bidearen ondoan.

BUKAERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, San Nartziso.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Otsoenea (V-17), Etxea (V-17B), Aroztegia (V-27), Ahizpan etxea (V-28), Etxea (V-107), Etxea (V-30), Bidegain (V-30), Gure aterpe (V-32), Mendiola (V-33), Lekueder (V-34A, 34B), Olakiñeta (V-29), Arruabarrena (V-114), Txatarrerria (O-90) eta San Nartziso (A-86).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - OLAKIÑETA	1.090 m	2,7 - 3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
OLAKIÑETA - SAN NARTZISO	294 m	2,0 m	Lurra	Ona	LI
	195 m	< 1 m	Lurra	Erdi itxia	O
	165 m	3,5 m	Legarra	Ona	IG
	65 m	3,5 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	1.808 m				
+ 09.1 BIDE-ADARRA: EZURRIKI	154 m.	1,5 - 1,8 m	Lurra	Ona	O
	50 m.	--	Lurra	Galduta	O
09.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	204 m				
+ 09.2 BIDE-ADARRA: MENDIOLA	391 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	87 m	< 1m	Lurra	Galduta	O
09.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	478 m				
+ 09.3 BIDE-ADARRA: 10 BIDEAREN LOTURA	51 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG

	177 m	1,8 m	Lurra	Ona	LI
09.3 BIDE-ADARRA GUZTIRA	228 m				
+ 09.4 BIDE-ADARRA: ERREPIDEA	345 m	< 1 m	Lurra	Ona	O

GUZTIRA DUEN LUZERA: 3.063 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia egoera onean dago, San Nartziso baino lehenago dagoen zati bat izan ezik, bertan dagoen landaretzaren ondorioz bidezidor batean bihurtu baita.

Ezurrikira doan bide-adarra belarrez estalia dago eta oraindik ere bere ibilbidea zati gehienetan nabaria den arren, bai lehen zatia bai azken zatia desagertu egin dira. Gainera hainbat itxitura daude, bertatik igarotzea galarazten dutenak.

Mendiolara doan bide-adarra egoera onean dago, azken zatia izan ezik ia desagertu egin baita zelai batean bihurtu delako.

Bai Ezurrikira bai Mendiolara doazen bide-adarrak, A-8 autopista eraiki dela eta moztuta gelditu dira, autopistaren beste aldean gelditu diren zatiak hiri-lurrean gelditu direlarik.

10. bidearen loturako bide-adarra egoera onean dago, eta Errepidera doana ordea, bidezidor bat da.

ERABILERA: Bide nagusia, Ezurrikira eta Mendiolara doazen bide-adarrak inguruko eraikuntza eta lursailera joateko erabiltzen dira. 09.3 bide-adarra Alzubide bidearen lotura bezala eta Errepidera doan bide-adarra, lasterbide bezala.

AZPIEGITURAK

Hodia (1317, 1318)

Areka (1314).

+ 09.1 Bide-adarra: Ezurriki

Itxiturak (batzuk igarotzea galarazten dute)

+ 09.2 Bide-adarra - Mendiola

Bide-seinalea (1331)

+ 09.3 Bide-adarra– 10 bidearen lotura

Zubia (2452)

Mineralarentzako garbilekua (1321).

+ 09.4 Bide-adarra: Errepidea

Zubia

Uharka (2453)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 29, 3, 238*, 6, 201, 97*, 39*, 40*, 25*, 23, 24, 52*, 53*, 212, 49* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 7, 235, 238*, 237, 202, 200, 97*, 39*, 40*, 103, 25*, 52*, 53*, 212, 49*, 259 Lursailak.

+ 09.1 Bide-adarra: Ezarriki

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 204*, 206*, 208* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 200, 204*, 206*, 208* Lursailak

+ 09.2 Bide-adarra - Mendiola

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 97, 267, 97, 80 Lursailak.

- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 200, 204, 206, 207, 96, 214, 210, 215, 211 Lursailak.

+ 09.3 Bide-adarra: 10 bidearen lotura

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 25*, 63* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 25*, 63* Lursailak

+ 09.4 Bide-adarra: Errepidearen lotura

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 52*, 24, 54*, 1 Lursailak.
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 52*, 49, 54*, 50 Lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bide nagusia azaltzen da, baina 09.2 bide-adarraren inguruan ibilbidea zerbait desberdina du. 09.1 eta 09.2 bide-adarrak ibilbide berdinarekin azaltzen dira, 09.3 bide-adarra, ibilbidea zertxobait desberdina, eta 09.4 bide-adarra lerro bakar batekin.

IGNko Planoa: Bide nagusia eta 09.2, 09.3 eta 09.4 bide-adarrak herri bide bezala jasotzen dira. Bide nagusia Olakineta bidea bezala, eta 09.2 bide-adarra Mendiola bidea bezala.

Inbentarioa: Bide nagusia 2.304 bidea (Olakiñeta bidea) eta 2.305 bidea (San Narciso Olakiñeta bidea) bezala azaltzen da; 09.2 bide-adarra, 2.392 bidea (Mendiola bidea) bezala; eta 09.3 bide-adarra 2.304 bidearen (Olakiñeta bidea) zati bat bezala.

Obrak: Bide nagusia 38, 39, 40 eta 42 tramuekin bat dator; 09.2 bide-adarra 44 tramuarekin; 09.3 bide-adarra 41 tramuarekin eta 09.4 bide-adarra 43 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 38.479, 36.943, 30.340 eta 21.681 finketan bide nagusia "camino público" bezala jasotzen da; eta 09.2 bide-adarra 17.304 finkan "camino" bezala.

Beste batzuk: 09.1 bide-adarreko finka mugakideen jabeek, bide hau herri bidea dela adierazten dute.

ESKURATZE DATA: Bide honen eta bere bide-adarren eskuratze data ez da ezaguna, baina antzina-antzinatik Irungo udalarena da

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan azaltzen da. Gainera, finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean bai bide nagusiaren bai bide-adarren izatea jasotzen da, 09.2 bide-adarra 30.276 finkan jabetza pribatuko bidea bezala azaltzen den arren.

Bestalde, bide-nagusia eta Ezkurrikira doan 9.1 bide-adarra eta Mendiolara doan 09.2 bide-adarra inguruko lursail eta eraikuntzetara joateko erabiltzen dira, 09.3 bide-adarra bide nagusia eta Alzubide bidea komunikatzen ditu eta 09.4 bide-adarra azkarbide bezala erabiltzen da, argi egonik, bai batzuk eta bai besteak, erabilera eta zerbitzu publikokoak direla.

Hori dela eta, bide hau eta bere bide-adarrak udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasuneko zati izatera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Bide nagusiaren zati bat bidezidor batean bihurtu da, hori dela eta, zati hau garbitu egin behar da, bere trazatua berreskuratuz eta markatuz, horrela trazatua galtzea eta aurrerantzean usurpatua izatea galaraziz.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bide nagusiaren gainerako zatiak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

Mendiolara doan 09.2 bide-adarraren azken zatia ordea, desagertu egin da, zelai batean bihurtu delako; eta 09.1 bide-adarra ia bere trazatua galdu du, erdiko zatian bakarrik izanik nabaria. Gainera bere ibilbidean hainbat itxitura daude, igarotzea galarazten dutenenak. Hori dela eta, udalak ikuspuntu juridikotik begiratuta, eta Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera, ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa eman beharko luke, legetestu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- a.- Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanek. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- b.- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- c.- Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontatzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.
- d.- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.

- e.- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- f.- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- g.- Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Bestalde, 09.2 bide-adarra, erregistroko 30.276 finkan jabetza pribatuko bide bezala agertzen da; hori dela eta, bide honen jabetzaren inguruan eztabaidak egonez gero, udalak Ofiziozko ikerketa espediente bat kudeatu beharko du.

Ofiziozko ikerketa egiteko eskumena Tokiko Entitateen Ondasunen Araudiko 45. artikuluan onetsia dago, eta prozedura 46. artikuluan eta ondorengoetan arautzen da. Eskumen hori egin edo gauzatu daikete, seguruena ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura ondoren adieraziko diren ekintzetan zehaztuko litzateke:

1. Udal Korporazioaren akordioa espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren ezaugarrien berri emanez. Aipatu aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-taulan jarriko da 15 egunez.
2. Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
3. Hilabeteko epean, iragarki-taulan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duten pertsonen bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin

batera.

4. Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
5. Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
6. Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, Idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
7. Akordioari bi bidetatik egin dakioke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Kasu honetan Udalaren aldeko frogagiri gisa ondoko agiriak ditugu: 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan, eta Jabetza Erregistroko 17.304 finkaren deskripzioan. Gainera, bidea zeharkatzen duen lursailen jabeek, ez dute kontrakoa esan.

10. ALTZUBIDE BIDEA

HASIERA: Arretxe-Ugalde industrialdea.

BUKAERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Uruneko zabala.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Haize ur (V-7), Lizardi (L-5), txakur-etxea (L-32), Altzubideko errota (L-6), Altzubide (L-7), Uruneko errota (O-62), Granja Une (O-72), Urune berri (O-74) eta Gurmendi (O-76).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
INDUSTRIALDEA - ALTZUBIDE	323 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
ALTZUBIDE - URUNEKO ERROTA	1.367 m	2,0 m	Lurra-Harria	Ona	LI
URUNEKO ERROTA - BUKAERA	482 m	1,2 m	Lurra	Ona	LI
	129 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	2.301 m				
+ 10.1 BIDE-ADARRA: LIZARDI	513 m	2,3 - 3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
+ 10.2 BIDE-ADARRA: ERREKAUNDI	556 m	2,2 m	Lurra	Ona	LI
+ 10.3 BIDE-ADARRA: S. ANTON ALDERA	372 m	2,7 m	Hormigoia	Ona	IG

GUZTIRA DUEN LUZERA: 3.742 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia eta San Antonera doan bide-adarra egoera onean daude. Lizardira doan bide-adarraren lehen zatia, txakurtegiraino, nahiko narriatua dago, eta Errekaaundi bide-adarra, egoera onean dagoen mendi-bide bat da.

ERABILERA: Bide nagusia Alzubide baserrira eta inguruko lursailetara joateko erabiltzeaz gain, pasealeku bezala erabiltzen da; Lizardi bide-adarra inguruko sarbide bezala eta 12 zenbakiko bidearekiko lotura bezala; San Anton bide-adarra Urneko errota baserriaren sarbide bezala eta azkenik Errekaundi bide-adarra, lursailetara sartzeko.

AZPIEGITURAK

Zubia (1333)

Meatze-aho (2454)

Osin

+ 10.1 Bide-adarra - Lizardi

Zuloguneak

Harrizko pareta (1390)

+ 10.3 Bide-adarra - San Anton

Zubia (1340)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: Autopista, 3. Poligonoa: 241, 244, 245, 247, 111, 182*, 60*, 63, 62*, 57*, 45 Lursailak.
- Ezkerretara: Autopista, 3. Poligonoa: 92, 107, 253, 100, 110, 112, 182*, 60, 59, 62*, 57*, 55 Lursailak.

+ 10.1 Bide-adarra - Lizardi

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 92*, 254, 93*, 134 Lursailak.
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 92*, 93* Lursailak, Autopista.

+ 10.2 Bide-adarra - Errekaundi

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 182*, 58 182* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 182* Lursaila

+ 10.3 Bide-adarra - San Anton

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 58*, 66, 191 Lursailak.
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 58*, 182, 193 Lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bide nagusia eta 10.1 bide-adarra herri bide bezala azaltzen dira, 10.2 bide-adarraren zati bat lerro batekin azaltzen da, eta 10.3 bide-adarra lerro bakar batekin markatua.

IGNko Planoa: Bide nagusia Olakinetatik Alzubidera doan herri bide bezala azaltzen da. Eta 10.1, 10.2 eta 10.3 bide-adarrak herri bide bezala ere azaltzen dira, azkenekoa, Urruneko errota herri bidea izanik.

Inbentarioa: Bide nagusia Uruneraino 2.306 bidea bezala azaltzen da, eta gainerakoa ez da jasotzen. 10.1 bide-adarra 2.307 bidea, Azpilikueta-Lizardi bidea, bezala azaltzen da, eta 10.3 bide-adarra, 2.306 bidea bezala.

Obrak: Bide nagusia 45, 46, 47, 49, 344 eta 345 tramuekin bat dator; 10.1 bide-adarra 64 eta 65 tramuekin; 10.2 bide-adarra 347 tramuarekin; eta 10.3 bide-adarra 48 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 42.645 finkan bide nagusiaren erreferentziak aurkitu dira "camino público" eta "camino vecinal" bezala; 3.923 finkan "camino público" bezala eta 17.865 finkan "camino vecinal" bezala.

Plano partikularra: Azpilicueta baserriko planoan 10.1 bide-adarra “camino carretil” bezala azaltzen da.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901 urteko plano batean azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: “Jabetza titulua” atalean aipatu den bezala, ez dago bide honen jabetza titulurik, bere izatearen, edo zati baten izatearen, erreferentzia agiri askotan azaltzen den arren, adibidez, finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, eta 1999. urtean udalak egindako artalaren planoan.

Bestalde, bai bide nagusia bai bide-adarrak inguruko baserri eta lursailetara joateko erabiltzen dira, eta bide nagusia inguruko ibilbidea bezala, argi egonik erabilera eta zerbitzu publikokoak direla.

Hori dela eta, bide hau inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Bide nagusia egoera onean dago, beraz, beste edozein udal ondasunak eskatzen duen arta-lana egitea baina gehiago ez du behar.

Bide-adarrei dagokionez, 10.1 bide-adarraren lehen zatia oso narriatua dagoela aipatu behar da, beraz, konpondu egin beharko litzateke.

Bide adar honen gainerako zatiak eta gainerako bide-adarrak ordea, edozein udal ondasunak eskatzen duen arta-lana egitea baina gehiago ez dute behar.

11. TXENPERENEA BIDEA

HASIERA: Altamira bidea (12 zkia.), Altzulegarrea baserria

BUKAERA: Egiluze.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Altzulegarrea (L-25), Txenperenea (L-26), Motzenea (L-29), Mendialde (L-27) Lindaberri (L-28) eta Añesenea (L-30).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - MOTZENEA	314 m	3,4 m	Hormigoia	Ona	IG
MOTZENEA - AÑESENEA	235 m	2,5 m	Hormigoia	Ona	IG
AÑESENEA - BUKAERA	123 m	1,8 m	Lurra	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	673 m				
+ 11.1 BIDE-ADARRA: MOTZENEA	185 m	3,7 m	Hormigoia	Ona	IG

GUZTIRA DUEN LUZERA: 858 m.

BIDEAREN EGOERA: Bai bide nagusia bai bide-adarrak egoera onean daude.

ERABILERA: Bai bide nagusia bai bide-adarrak inguruko eraikuntzetara joateko erabiltzen dira.

AZPIEGITURAK

Seinalizazioa: gehieneko abiadura (2455, 2456)

+ 11.1 Bide-adarra - Motzenea

Seinalizazioa: gehieneko abiadura (2316)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: A-8 autopista, 3. Poligonoa: 165*, 181, 203, 155, 260, 147* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 164, 165*, 157, 268, 154, 147* Lursailak

+ 11.1 Bide-adarra - Motzenea

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 157, 158 Lursailak.
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 165 Lursaila

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bai bide nagusia bai 11.1 bide-adarra azaltzen dira.

IGNko Planoa: ez dira ez bide nagusia ez 11.1 bide-adarra azaltzen, hiri-lurrean baitaude.

Inbentarioa: bide nagusia 2.319 bidearekin, Txenperenea-Arriaran bidearekin, bat dator, eta 11.1 bide-adarra, 2.318 bidearekin, Txenperenea-Lapice.

Obrak: bide nagusia 318 eta 319 tramuekin bat dator, eta 11.1 bide-adarra, 320 tramuarekin.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko plano batean azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Ez dago bide honen jabetza titulurik, baina antzina-antzinatik udalarena da, eta 1901. Urtean Irungo Udalerriko Bideen planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan azaltzen da.

Gainera, inguruko eraikuntzetara joateko erabiltzen da, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik. Hori dela eta, bidea inbentarioan sartzea aski da, formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideak, edozein udal ondasunek behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

12. ALTAMIRA BIDEA

HASIERA: Txenperenea bidea (11 zkia.).

BUKAERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Oianalde.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Harrobia (L-20), Ur-biltegia (L-10), Katixa (L-11), Arbelenea (L-12), Gure ametsa (L-13), Eguzki alde (L-14), Elorditxipi (L-15), Elordi (L-16), Altamira (L-18), Legabide (O-38), Oianalde (O-54 eta Zubeltzuko borda (L-17).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA – UR-BILTEGIA	387 m	3,3 - 3,8 m	Asfaltoa	Ona	IG
UR-BILTEGIA - ALTAMIRA	739 m	2,5 - 2,8 m	Hormigoia	Ona	IG
ALTAMIRA - BUKAERA	641 m	2,2 - 2,4 m	Lurra	Ona	LI
	140 m	2,7 m	Legarra	Ona	LI
	34 m	2,7 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	1.941 m				
+ 12.1 BIDE-ADARRA: AZPILIKUETA	207 m	2,7 m	Hormigoia	Ona	IG
+ 12.2 BIDE-ADARRA: ZUBELTZU	1.419 m	2,0 - 2,6 m	Lurra	Ona	LI
	128 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
12.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	1.547 m				
+ 12.3 BIDE-ADARRA: LEGABIDE	329 m	1,8 - 3,0 m	Lurra	Ona	LI
	119 m	3,5 m	Lurra	Galduta	O
	37 m	3,5 m	Hormigoia	Ona	IG
12.3 BIDE-ADARRA GUZTIRA	485 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 4.180 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia egoera onean dago, baina lurrezko zorua duen zatia, ildoak dituen zati bat du.

Bestalde, Azpilikuetakoko bide-adarra, hormigoizkoa dena, eta Zubeltzuko bide-adarra, mendi-bidea dena, egoera onean daude. Legabideko bide-adarra nabaria den bide bat da, baina bere ibilbidearen zati handi batean belarrez estalia dago.

Gainera, 12.2 eta 12.3 bide-adarretan hainbat itxitura daude, baina hauek ez dute pasatzea galarazten.

ERABILERA: Bide nagusia eta Azpilikuetakoko bide-adarra oso erabiliak dira inguruko eraikuntza eta lursailetara joateko, Zubeltzuko bide-adarra inguruko lursailetara joateko erabiltzen da eta Legabideko bide-adarra ia ez da erabiltzen.

AZPIEGITURAK

A-8ko Zubia (1399)

Kutxatilak (1387, 1386, 1385, 1401)

+ 12.2 Bide-adarra - Zubeltzu

Itxitura (2.695)

+ 12.3 Bide-adarra - Legabide

Itxitura (2458, 2718, 2719)

Harresia (2720, 2721)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: A-8*, 3. Poligonoa: 154*, 254, 94, 137, 138, 139, 133*, 140, 183*, 78*, 184 Lursailak.
- Ezkerretara: A-8*, 3. Poligonoa: 132, 134*, 136, 133*, 72, 183*, 78*, 79 Lursailak.

+ 12.1 Bide-adarra - Azpilikueta

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 93, 254*, 225* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 254*, 225* Lursailak

+ 12.2 Bide-adarra - Zubeltzu

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 140*, 130, 129, 114, 113, 112, 182*, 193* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 183, 140*, 70, 183, 182*, 193* Lursailak

+ 12.3 Bide-adarra - Legabide

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 78*, 73 Lursailak.
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 78*, 69, 67 Lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide nagusia bai bide-adarr desberdinak azaltzen dira, 12.1 bide-adarra antzerako ibilbide batekin.

IGNko Planoa: bide nagusia herri bide bezala azaltzen da; 12.1 bide-adarra bidea bezala; 12.2 bide-adarra Aristigazte-Elordi herri bide bezala eta 12.3 bide-adarra Legabide herri bide bezala.

Inbentarioa: Bide nagusia 2.316 bidea, Elordi eta Oihanalde bidea bezala azaltzen da; 12.1 bide-adarra lerro ez lodi bat bezala; 12.2 bide-adarra 2.308 bidea, Zubelzuko gaina bidea, bezala; eta 12.3 bide-adarra 2.365 bidea, Legabide bidea bezala.

Ondarea: 12.2 bide-adarra 156 epigrafearen planoan herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: Bide nagusia 67, 63, 68, 70, 71, 75, 74, 73 eta 349 tramuekin bat dator; 12.1 bide-adarra 350 tramuarekin; 12.2 bide-adarra 72 eta 351 tramuekin; eta 12.3 bide-adarra 76 eta 77 tramuekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 19.472 finkan bide nagusiaren erreferentzia aurkitu da "camino público" bezala, 7.964 finkan "camino vecinal" bezala eta 5.207, 5.206 eta 48.952 finketan "camino carretil público" bezala. Jabetza Erregistroko 5.218 finkan 12.2 bide-adarra "camino vecinal" bezala jasotzen da; eta 37.874 finkan 12.3 bide-adarra "camino carretil" bezala.

Plano partikularra: Azpilikueta baserriko planoan bide nagusia eta 12.1 bide-adarra "camino carretil público" bezala azaltzen dira. Eta Iparragirre baserriaren planoan bide nagusia "camino público" bezala.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezaguna, baina antzina-antzinatik Irungo udalarena da

EGOERA JURIDIKOA: Bide honen izatea hainbat planoetan azaltzen da, adibidez, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan edo 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan.

Bestalde, bide hau hainbat agiritan ere azaltzen da, adibidez aurretik onartutako udal inbentarioak edo finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenetan.

Azkenik aipatu, bide honek jasaten duen erabilera, erabilera eta zerbitzu publikokoa dela esateko nahikoa froga dela.

Hori dela eta, bide hau inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasunera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Lurrezko zorua duen bide nagusiaren zatiak, bide-zati batek ildoak ditu, hori dela eta, hauek konpontzea gomendatzen da, gehiago narriatu aurretik.

Bestalde, Legabidera doan bide-adarra belarrez estalia dago, beraz, garbitzea eta desbrozatzea beharrezkoa da, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bide nagusiaren gainerako zatiak eta bide-adarrak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

13. EIZAGIRRE BIDEA

HASIERA: Altamira bidea (12 zkia.).

BUKAERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Arriagaran.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Iparragirre (L-19), Txingudi ur-araztegia (L-21), Arkatzeleku (L-23), Bengoetxea (L-24), ehiztarien etxola (L-22), Eizagirre (L-12) eta Arriagaran (L-10).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - IPARRAGIRRE	72 m	4,0 m	Asfaltoa	Ona	IG
IPARRAGIRRE – ETXEAK	232 m	3,0 m	Asfaltoa	Ona	IG
ETXEAK - BUKAERA	668 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	972 m				
+ 13.1 BIDE-ADARRA: ELORDI	32 m	2,7 m	Asfaltoa	Ona	IG
	58 m	2,4 m	Legarra	Ona	IG
13.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	90 m				
+ 13.2 BIDE-ADARRA: SARTAKAERREKA	107 m	2,8 m	Hormigoia	Ona	IG
	265 m	--	Lurra	Galduta	O
13.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	372 m				
+ 13.3 BIDE-ADARRA: ARRIAGARAN	82 m	2,8 m	Hormigoia	Ona	IG
	191 m	--	Lurra	Galduta	O
13.3 BIDE-ADARRA GUZTIRA	273 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.707 m.

BIDEAREN EGOERA: Bai bide nagusia bai Elordiko bide-adarra egoera onean daude.

Sartakaerrekako bide-adarra eta Arriagarangoa A-8 autopista eraiki zenetik moztuta gelditu dira, A-8aren beste aldean gelditu diren zatiak hiri-lurrean kokatzen direlarik. Ondorioz, bi bide-adar hauetatik hormigoizko zatiak bakarrik daude egoera onean. Sartakaerreka bide-adarraren kasuan, gainerako ibilbidea galdu egin da landaketa batzuk egin dituztelako; eta Arriagaran bide-adarraren kasuan ere galdu egin da, kasu honetan A-8 eraikitzeke egindako betelan batengatik.

ERABILERA: Bide nagusia, Elordiko bide-adarra eta Sartakaerrekako bide-adarraren zati bat inguruko lursailak joateko erabiltzen dira. Arriagarango bide-adarra ordea, gaur egun ez da erabiltzen.

AZPIEGITURAK

Kutxatilik (1380, 1379, 1378, 1377, 1374, 1373, 1370, 1369, 1368, 1367).

Arekak (1381, 1375, 1366, 2459)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 133*, 134*, 240*, 142*, 145* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 133*, 134*, 240*, 142*, 145* Lursailak

+ 13.1 Bide-adarra - Elordi

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 133* Lursaila
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 133* Lursaila

+ 13.2 Bide-adarra - Sartakaerreka

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 240* Lursaila
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 240* Lursaila

+ 13.3 Bide-adarra - Arriagaran

- Eskuinera: 3. Poligonoa: 145*, 142* Lursailak
- Ezkerretara: 3. Poligonoa: 145*, 142* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide nagusia bai bide-adar desberdinak azaltzen dira.

IGNko Planoa: Bide nagusia Arrillaran Iparragirre herri bide bezala azaltzen da; 13.1 bide-adarra bi lerro jarraituekin; 13.2 bide-adarraren lehen zatia bakarrik azaltzen da; eta 13.3 bide-adarra herri bide bezala azaltzen da.

Inbentarioa: Bide nagusia 2.321 bidea, Arrillaran Iparragirre bidea, bezala azaltzen da; eta 13.2 bide-adarra, Txenperenea-Arrillaran izeneko 2.319 bidearen zati bat bezala.

Obrak: Bide nagusia 61, 62 eta 60 tramuekin bat dator; eta 13.1 bide-adarra 69 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 5.207 eta 5.206 finketan bide nagusia "camino carretil público" bezala azaltzen da eta 320 finkan "camino carretil" bezala. 13.3 bide-adarra, Jabetza Erregistroko 5.109 finkan "camino carretil" bezala jasotzen da eta 31.745 finkan "camino publico" bezala.

Plano partikularra: Iparragirre baserriko planoan bai bide nagusia bai 13.1 bide-adarra herri bide bezala azaltzen dira.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko planoan azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Bide nagusia erabilera eta zerbitzu publikokoa da, inguruko lursail eta eraikuntzetarako joateko erabiltzen baita.

Bide-adarrak ordea, A-8a eraiki ostean zatituta gelditu direnetik, zati batzuk ez dira erabiltzen, baina herri jabarikoak direla argi dago, hauek bai 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, bai Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, bai 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, bai 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan eta bai finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean azaltzen baitira.

XEDAPEN JURIDIKOA: A-8 autopista eraiki zenetik, Arriagaran eta Sartakaerreka bide-adarrak moztu egin dira, eta Arriagaran bide-adarraren bukaeran betelan bat egin da eta Sartakaerreka bide-adarra usurpatu egin da, bukaerako zatian landaketa bat egin baita. Hori dela eta, udalak ikuspuntu juridikotik begiratuta, eta Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera, ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa eman beharko luke, lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- a.- Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- b.- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- c.- Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal

izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.

- d.- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- e.- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- f.- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- g.- Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Hori bai, kontuan harturik trazatua A-8 autopista eraiki zenean moztuta gelditu zela, eta gaur egun ez dela erabiltzen, udalak bidea berreskuratu nahi duen baloratu beharko du, edo bere ordean, gaur egun erabiltzen dutenei saldu. Horretarako, beharrezkoa da, lehendabizi ondasunaren kalifikazio juridikoa aldatuko duen espediente bat kudeatzea.

Bideren gainerako zatiak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

14. ELORDITXIPI BIDEA

HASIERA: Lizardira doan bide-adarra (10.1 zkia.), txakurtegi ondoan.

BUKAERA: GI-3452 Errepidea, Bentasetik Olaberriara doana, Santxotenea.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Elorditxipiko borda (L-8), Elorditxipi (L-15), Elordi (L-16), Mendiondo (O-22) eta Igiñiz (O-36).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

Kasu honetan, udalak bere alde bidea hainbat agiritik azaltzea du, hain zuzen agiri hauetan azaltzen da:

- 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoa,
- Institutu Geografiko Nazionaleko planoak
- 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoak.
- Finka mugakideen deskribapena.

22. URKETEGIBERRI BIDEA

HASIERA: N-121 Errepidea, Nafarrora doana, Gaztañalde.

BUKAERA: San Martzialeko gaina bidea (25 zkia.).

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Etxetxikiberri (Be-51), Mendikoenea (Be-52), Zinkonea (Be-53), Zapateneaberri (Be-54), Zapatenea (Be-55), Larraldenea (Bi-5) eta Urketegiberri (Bi-7).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - URKETEGIBERRI	709 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
URKETEGIBERRI - S.MARTZIAL BIDEA	85 m	2,2 m	Lurra	Ona	LI
	110 m	1,5 m	Lurra	Irregularra	O
	97 m	< 1 m	Lurra	Erdi itxia	O
	444 m	2,5 - 3,0 m	Lurra	Ona	LI
19 BIDEA - BUKAERA	220 m	1,8 m	Lurra	Ona	LI
BIDEA GUZTIRA	1.665 m				
+ 22.1 BIDE-ADARRA: SEÑORIOTZ	320 m	2,2 m	Lurra	Ona	LI
	289 m	2,8 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDE-ADARRA GUZTIRA 22.1	609 m				
+ 22.2 BIDE-ADARRA: SEÑORIOTZALDE	112 m	3,2 m	Lurra	Ona	LI
	122 m	1,5 m	Lurra	Itxita	O
	198 m	1,5 m	Lurra	Ona	O
BIDE-ADARRA GUZTIRA 22.2	432 m				
+ 22.3 BIDE-ADARRA: ERKASTEGI	538 m	2,5 m	Lurra	Ona	LI

GUZTIRA DUEN LUZERA: 3.244 m.

BIDEAREN EGOERA: Orokorrean bide nagusia egoera onean dago, ibilbidea argia eta nabaria izanik; baina Urketegiberri baserria igaro ondoren, lurrezko zorua duen zati bat du, nahiko zikina dagoena, eta jarraian, bertan dagoen landaretzaren ondorioz bidezidor batean bihurtu den beste zati bat.

Bide-adarrei dagokionez, Señoriotz-eko bide-adarra egoera onean dago; eta Señoriotzalde-ko bide-adarra, sastrakaz janda dagoen zati bat izan ezik, ibilbide argia eta nabaria du.

Azkenik, Erkastegi-ko bide-adarra mendi-bide bat da, bertan dagoen landaretzagatik eta ibilbidean zuhaitz eroriak daudenez ixten hasi dena.

Gainera, 22.2 eta 22.3 bide-adarretan hainbat itxitura daude, baina hauek ez dute igarotzea galarazten.

ERABILERA: Lehen bide nagusia oso erabilia zen mendi aldera joateko; baina gaur egun inguruko lursail eta eraikuntzetara joateko bakarrik erabiltzen da. Bestalde, Señoriotz-eko bide-adarra inguruko eraikuntza eta lursailletara joateko erabiltzen da, eta gainerako bide-adarrak lursailen sarbide bezala bakarrik.

AZPIEGITURAK

Seinalizazioa: 30 km/h-ko gehieneko abiadura (2075)

Hodia (2087, 2088)

Arekak (2090)

Kutxeta (2089, 2093)

Aska (2095)

Zulogunea (2091)

+ 22.1 Bide-adarra - Señoriotz

Hodia (2097, 2018)

Areka (2092)

+ 22.2 Bide-adarra - Señoriotzalde

Itxitura (2535)

+ 22.3 Bide-adarra - Erkastegi

Itxitura (2536, 2537, 2538, 2539)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 139, 330, 167, 145, 124, 142, 143*, 103*, 82*, 78*, 99, 89*, 86 Lursailak.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 140, 143*, 144, 122, 103*, 82*, 78*, 329, 89*, 88 Lursailak.

+ 22.1 Bide-adarra - Señoriotz

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 82*, 78*, 329, 135*, 100*, 109* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 82*, 78*, 81, 135*, 100*, 109* Lursailak

+ 22.2 Bide-adarra - Señoriotzalde

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 89, 109*, 100* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 329, 102, 109*, 100* Lursailak

+ 22.3 Bide-adarra - Erkastegi

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 89*, 107*, 106*, 89*, 105*, 108* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 89*, 107*, 106*, 89*, 105*, 108* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bide nagusia antzerako ibilbide batekin azaltzen da, 22.1 bide-adarraren zati bat bakarrak azaltzen da, 22.2 bide-adarra ibilbide berdinarekin; eta 22.3 bide-adarra ibilbide zeharo desberdinarekin.

IGNko Planoa: bide nagusia herri bide bezala azaltzen da, 22.1 eta 22.3 bide-adarren arteko zatia izan ezik, ez dela marraztua azaltzen. Bide-adar guztiak herri bide bezala azaltzen dira.

Inbentarioa: bide nagusia, 22.1 bide-adarreraino 2.346 bidea, Urketegi bidea, bezala azaltzen da, eta 22.3 bide-adarretik aurrera, lerro beltz lodi batekin. 22.1 bide-adarra 2.346 bidearen gainerako zatia bezala azaltzen da eta 22.2 bide-adarra lerro beltz batekin azaltzen da.

Ondarea: Bide nagusia eta 22.1 bide-adarrak, 191 epigrafeko planoan herri bide bezala azaltzen dira. Eta 204 epigrafeko planoan, bide nagusia ere, herri bide bezala jasotzen da.

Obrak: bide nagusia 257, 260 (zati bat), 263 eta 267 tramuekin bat dator; 22.1 bide-adarra 261 eta 260 (zati bat) tramuekin; 22.2 bide-adarra 262 tramuarekin, eta 22.3 bide-adarra 264 tramuarekin.

Plano partikularra: Aldazarretako lursaileko planoan (1926) bide nagusia eta 22.3 bide-adarra "camino carretil" bezala azaltzen dira; eta Señoriotz-eko lursaileko planoan (1981), 22.1 eta 22.2 bide-adarrak "camino público" bezala. Itziako bizkarrako planoan, bide nagusia "camino público" bezala markatuta dago.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau lehen erabiltzen zen aina ez erabili arren, inguruko lursail eta eraikuntzei zerbitzua ematen jarraitzen du, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik. Gainera, bere izatea hainbat agiritan jasotzen da, adibidez,

1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen plano eta finka mugakideen plano partikularretan.

Hori dela eta, ondasuna udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasuneko zati izatera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: “bidearen egoera” atalean aipatu den bezala, bai bide nagusia bai bide-adarrean zikinak dauden zatiak edo bidezidor batean bihurtutakoak daude. Hori dela eta, zati hauek garbitu eta desbrozatzeari gomendatzen da, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bide nagusiaren gainerako zatiak eta bide-adarrak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

23. ARGİÑENEABERRI BIDEA

HASIERA: N-121 Errepidea, Nafarrora doana, Gurutze.

BUKAERA: San Martzial bidea (19 zkia.), Iratzabal.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Argiñeneaberri (Bi-13), Señoriotz (Bi-11), Señoriozborda (Bi-10), Señorioztxiki (Bi-9) eta Iratzabal (Bi-31).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA – BUKAERA	1.067 m	2,8 m	Hormigoia	Ona	IG
+ 23.1 BIDE-ADARRA: IRATZABAL	28 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	105 m	1,5 m	Lurra	Ona	O
	179 m	2,2 m	Lurra	Erdi itxia	O
	63 m	2,5 m	Hormigoia	Ona	IG
23.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	375 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.442 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia egoera onean dago. Iratzabaleko bide-adarra ordea, zati batean utzia dago eta ibilbidea nabaria den arren, zati bat erdi itxia dago bertan dagoen landaretzaren ondorioz; baina lurrezko zorua duten zatiak oinez erabilgarriak dira.

Bestalde, Irtzabaleko bide-adarrean bi itxitura daude, eta batek igarotzea galarazten du.

ERABILERA: Bide nagusia inguruko baserriak duten komunikabide nagusia da; eta Irtzabal-eko bide-adarra inguruko eraikuntza batzuetara eta lursailletara joateko erabiltzen da.

AZPIEGITURAK

Hodiak (2024, 2023, 2022, 2018)

Kutxeta (2025)

Harrizko pareta (2541)

Arekak (2016, 2021, 2540))

Harri-lubeta (2014)

+ 23.1 Bide-adarra - Irtzabal

Itxitura (2542, 2543)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 118, 115*, 135*, 100*, 109*, 128*, 146* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 323, 115*, 135*, 100*, 109*, 128*, 147, 146* Lursailak

+ 23.1 Bide-adarra - Irtzabal

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 136*, 147*, 146 Lursailak.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 136*, 147* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bai bide nagusia bai bide-adarra azaltzen dira.

IGNko Planoa: bide nagusia herri bide bezala azaltzen da, Argiñenea-Iratzabaleko zatia izan ezik; eta 23.1 bide-adarra bide bezala azaltzen da, bi lerro jarraian dituelarik.

Inbentarioa: bide nagusia 2.345 bidea, Argiñenea Iratzabal bidea, bezala azaltzen da.

Ondarea: bide nagusia 201 epigrafeko planoan marraztuta azaltzen da

Obrak: bide nagusia 240 eta 239 tramuekin bat dator, eta 23.1 bide-adarra 256 tramuarekin.

Eskriturak: bide nagusia Jabetza Erregistroko 2.992 finkan “camino carretil público” bezala azaltzen da, eta baita era, Señoriotz lursaileko planoan (1.981).

Plano partikularra: Echeluze lursaileko planoan eta Señoriotz lursaileko planoan bide nagusia “camino público” bezala azaltzen da. Etxetzar baserriko planoan 23.1 bide-adarra “camino vecinal” bezala azaltzen da.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko plano batean azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau inguruari zerbitzua ematen dio, eta ondorioz, erabilera eta zerbitzu publikokoa da. Gainera, bide nagusiaren izatea 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan; 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan, finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean eta plano pribatuetan jasotzen da; eta bide-adarrarena, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan.

XEDAPEN JURIDIKOA: Aipatu den bezala, Iratzabalgo bide-adarra nahiko utzia dago, sastrakaz beteta, eta ondorioz, zati batzuetan igaroezina da. Hori dela eta, udalak zati hauek garbitu egin beharko lituzke, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Gainera, bide-adar honetan igarotzea galarazten duen itxitura bat dago, hori dela eta, hau ireki egin beharko litzateke, igarotzea galarazten ez duen beste itxitura batengatik ordezkatur. Sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- a. Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- b. Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- c. Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.
- d. Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.

- e. Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- f. Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- g. Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Bide nagusia ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

24. MUÑOA BIDEA

HASIERA: N-121, Nafarrora doana, Gomizenea.

BUKAERA: Argiñeneaberri bidea (23 zkia.), Iratzabal.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Etxemendi (Bi-15), Luberriko borda (Bi-16), Muñoa (Bi-17), Bordaberri (Bi-18), Etxeberri (Bi-49) eta Etxetxar (Bi-25).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - MUÑOA	548 m	3,5 m	Hormigoia	Ona	IG
	50 m	1,5 m	Lurra	Ona	O
	158 m	1,5 m	Lurra	Erdi itxita	O
MUÑOA - ETXEBERRI	480 m	1,5 m	Lurra	Ona	O
ETXEBERRI - BUKAERA	75 m	2,5 m	Hormigoia	Ona	IG
	134 m	2,5 m	Legarra	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	1.445 m				
+ 24.1 BIDE-ADARRA: BORDABERRI	388 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	175 m	1,5 m	Lurra	Galduta	O
24.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	563 m				
+ 24.2 BIDE-ADARRA: ETXETXAR					
			221 M N-121 ERREPIDEA HANDITZEKO MOZTUA		

GUZTIRA DUEN LUZERA: 2.229 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia argia eta nabaria da, baina lurrezko zatiak erdi itxiak daude edo zikintzen hasiak bertan dagoen landaretzaren ondorioz; eta, zati bat, Etxeberri eta Irabatza artean, N-121 Errepidearen handitze lanekin moztuta gelditu da.

Bordaberriko bide-adarra ordea, lurrezko zoru bat erdi galdua du, bertan dagoen landaretza dela eta, eta beste zati bat, belarrez estalia dago.

Bestalde, Etxetzarreko bide-adarra N-121 Errepidearen handitze lanekin moztuta gelditu da.

Gainera, bide nagusian, lurrezko zorua duen zatian igarotzea galarazten duen ur-biltegi bat dago, eta Muñoatik gertu igarotzea galarazten duen itxitura bat dago. Bordaberri ondoan beste itxitura bat dago, baina honek ez du igarotzea galarazten.

ERABILERA: Bide nagusia eta Bordaberriko bide-adarra inguruko eraikuntza eta lursailera joateko erabiltzen da, eta Etxetzarreko bide-adarra, N-121 Errepidearen handitze lanekin moztuta gelditu da.

AZPIEGITURAK

Postontziak (2063)

Hontzia(2545)

Burdinsarea (2375)

Seinalizazioa (2376)

Arekak (2062, 2544)

+ 24.1 Bide-adarra - Bordaberri

Arekak (2547)

Itxiturak (2548)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 275*, 336*, 278, 134, 136, 111, 132*, 111, 148*, 147*, 146 lursailak; 6. Poligonoa: 13* lursaila.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 129, 275*, 336*, 130, 110, 132*, 125, 150, 148*, 147* lursailak; 6. Poligonoa: 13* lursaila

+ 24.1 Bide-adarra - Bordaberri

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 130*, 131*, 130*, 132*, 125*. lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 130*, 131*, 130*, 132*, 150 lursailak.

+ 24.2 Bide-adarra - Etxetxar

- Eskuinera: 6. Poligonoa: 13, 10, 11 lursailak.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 147, 148 lursailak.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide-nagusia bai bide-adarrak antzerako ibilbide batekin azaltzen dira.

IGNko Planoa: bide nagusia, Muñoaraino, zortasun bide bezala azaltzen da, eta gainerako zatiak ordea, azkenekoa izan ezik ez dela azaltzen, herri bide bezala. 24.1 bide-adarraren zati bat zortasun bide bezala azaltzen da eta beste zati bat ez da azaltzen. 24.2 bide-adarra bide bezala azaltzen da.

Inbentarioa: bide nagusia 2.344 bidea, Luberri bidea, eta 2.343 bidea, Bordazar-Etxetxar bidea, bezala azaltzen da, baina ibilbide desberdin batekin. 24.1 bide-adarra 2.343 bidearen zati bat bezala jasotzen da eta 24.2 bide-adarra 2343 bidearen gainerako zatia bezala.

Ondarea: 24.2 bide-adarra 297 epigrafeko planoan herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: bide nagusia 252, 253, 325 eta 256 (zati bat) tramuekin bat dator, 24.1 bide-adarra 254 tramuarekin bat dator eta 24.2 bide-adarra 255 tramuarekin.

Eskriturak: Bide nagusia Jabetza Erregistroko 4.027 finkan “camino carretil” bezala azaltzen da, 11.703 finkan “camino publico” bezala, 2.992 finkan “camino carretil público” bezala eta 50.096 “camino” bezala. 24.1 bide-adarra Jabetza Erregistroko 44.589 finkan “camino” bezala azaltzen da; eta 24.2 bide-adarra, 2.992 finkan “camino carretil público” bezala eta 50.096 finkan “camino” bezala.

Plano partikularra: Gombicecenea baserriko planoan bide nagusia eta 24.1 bide-adarra “camino vecinal” bezala azaltzen dira. Eta Etxetxar baserriko planoan 24.2 bide-adarra “camino vecinal” bezala azaltzen da. Muñoa baserriko planoan “camino carretil” bezala azaltzen da.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko plano batean azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan bide nagusiaren zati bat eta 24.1 bide-adarrarena zortasun bide bezala azaltzen dira eta ez herri bide bezala, baino gainerako planoetan – 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoa eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoak – eta udal inbentarioetan eta finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean herri bide bezala jasotzen dira.

Gainera, bai bata eta bai bestea, inguruko lursail eta eraikuntzetara joateko erabiltzen dira, eta ondorioz, erabilera eta zerbitzu publikokoak dira.

Hori dela eta, ondasuna udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasuneko zati izatera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Aipatu den bezala, bide nagusiak zati batzuk erdi itxita ditu eta beste batzuk zikintzen hasi dira; eta Bordaberrira doan bide-adarra zati batzuk sastrakaz beteta ditu, beste batzuk belarrez estalia, eta gainera zati bat

galdu egin da, hori dela eta, zatitu eta desbrozatzea gomendatzen da, galdu diren zatiak berreskuratuz, eta horrela desagertzea galaraziz eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Bestalde, bide nagusian bertatik igarotzea galarazten duen ur-biltegi bat dago eta Muñoatik gertu itxitura bat, igarotzea galarazten duena baita; hori dela eta, udalak lehendabizikoa kentzeko eskatu beharko luke eta itxitura igarotzea galarazten duen beste batengatik aldatzea. Eta sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Berreskurapen espedienteen prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- a. Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- b. Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.

- c. Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.
- d. Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- e. Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- f. Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- g. Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Azkenik aipatu, 24.1 bide-adarra, Institutu Geografiko Nazionalean zortasun bide bezala azaltzen dela, kontsultatutako gainerako agirietan herri bide bezala azaltzen den bitartean. Beraz, bide honen jabetzaren inguruan eztabaidak egonez gero, udalak Ofiziozko ikerketa espediente bat kudeatu beharko du, zati hori udal jabetzakoa dela frogatzeko.

Ofiziozko ikerketa egiteko eskumena Tokiko Entitateen Ondasunen Araudiko 45. artikuluan onetsia dago, eta prozedura 46. artikuluan eta ondorengoetan arautzen da. Eskumen hori egin edo gauzatu daikete, seguruena ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- 1.- Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- 2.- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- 3.- Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.
- 4.- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- 5.- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- 6.- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- 7.- Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Kasu honetan udalak, bide nagusia eta 24.1 bide-adarra udalarenak direla frogatzeko agiri hauek ditu: 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoa, 1999. Urtean udalak arta-lanen inguruan egindako planoak; udal inbentarioak eta finka mugakideen erregistroko deskribapena.

25. SAN MARTZIALEKO GAINA BIDEA

HASIERA: San Martzial bidea (19 zkia.), Lobriso aldea.

BUKAERA: Amasain bidea (26 zkia.), Saroiaberri.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - 25.1 BIDEADARREKO GURUTZEA	262 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
25.1 BIDEADARREKO GURUTZEA - BUKAERA	802 m	2,1 m	Lurra	Ona	LI
	191 m	2,5 m	Lurra-Harria	Ona	LI
BIDEA GUZTIRA	1.255 m				
+ 25.1 BIDE-ADARRA: ANTENA	61 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.316 m.

BIDEAREN EGOERA: Bai bide nagusia bai bide-adarra egoera onean daude.

ERABILERA: Bide nagusia inguruko lursailletara joateko erabiltzen da, eta mendi aldera joateko; eta bide-adarra antenara iristeko.

AZPIEGITURAK

Ez daude

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 296, 91*, 57*, 87 Lursailak.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 91*, 97, 342, 98, 57*, 88 Lursailak.

+ 25.1 Bide-adarra - Antena

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 57*, 307* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 57*, 307* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide nagusia bai bide adarra azaltzen dira.

IGNko Planoa: bide nagusia herri bide bezala azaltzen da.

Inbentarioa: bide nagusia 2.351 bidea, Cresta du San Marcial bidea, bezala azaltzen da.

Ondarea: bide nagusia 175 epigrafeko planoan marraztuta azaltzen da

Obrak: bide nagusia 269, 268 eta 266 tramuekin bat dator; eta 25.1 bide-adarra 270 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko planoan 854 finka "camino" bezala azaltzen da.

Plano partikularra: Iturriarte inguruko planoan bide nagusia "camino público" bezala azaltzen da; eta Ubandi-ancha lursaileko planoan eta Basakaitz lursaileko planoan "camino" bezala.

Beste datu batzuk: Bide nagusiak ia bere ibilbide guztia herri lurretik egiten du, eta 25.1 bide-adarra ibilbide osoa.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko plano batean azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Bide nagusia ia bere ibilbidea guztia herri lurretik egiten du, gainera, bide hau herri jabarikoa dela adieraziz hainbat agiri ditugu, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan eta Jabetza Erregistroko 854 finkan.

Bide-adarrari dagokionez, aipatu beharra dago, bere ibilbide guztia herri lurretik egiten duela, beraz, ez dago zalantzarik bere titulartasun inguruan; gainera 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan herri bide bezala azaltzen da.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideak, edozein udal ondasunek behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

26. AMASAIN BIDEA

HASIERA: GI-3453 Errepidea, San Martzialera doana.

BUKAERA: GI-3454 Errepidea, Ibarlatik Oiartzunera Erlaitzeko gainetik doana.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Etxepare (M-125), Aginaga (M-91), Idoetaborda (M-93), Idoeta (M-95), Iruzuloeta (M-107), Saroia (M-97), Saroiaberri (Bi-34) eta Amasain (Bi-35).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - SAROIABERRI	1.693 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
SAROIABERRI - AMASAIN	1.310 m	1,8 - 3,2 m	Lurra-Harria	Ona	LI
AMASAIN - BUKAERA	77 m	2,8 m	Legarra	Ona	IG
	562 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
BIDEA GUZTIRA	3.642 m				
+ 26.1 BIDE-ADARRA: SAN MARTZIAL	728 m	1,5 - 2,0 m	Lurra	Ona	O
+ 26.2 BIDE-ADARRA: TRENBIDEA	1.434 m	1,5 - 2,5 m	Lurra	Ona	LI
+ 26.3 BIDE-ADARRA: DESKARGA	148 m	2,4 m	Lurra	Ona	O
	147 m	2,4 m	Lurra	Erdi itxia	O
	222 m	1,5 m	Lurra	Galduta	O
	193 m	1,5 m	Lurra	Itxita	O
	679 m	2,4 m	Legarra	Ona	IG
26.3 BIDE-ADARRA GUZTIRA	1.389 m				
+ 26.4 BIDE-ADARRA: TXERRISORO	954 m	1,5 - 2,1 m	Lurra	Ona	LI

GUZTIRA DUEN LUZERA: 8.147 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia eta Trenbidea eta Txerrisoro bide-adarrak egoera onean daude, eta lur orotako ibilgailuentzat erabilgarriak dira. San Martziar bide-adarra, nahiko egoera onean dagoen arren, ermita inguruan ixten hasi da, bertan dagoen landaretzaren ondorioz. Eta Deskarga bide-adarra, sastrakaz janda dago eta zati batzuk erdi itxita eta beste bat galdu egin ditu.

Deskarga eta Txerrisoro bide-adarretan hainbat itxitura daude, baina hauek ez dute igarotzea galarazten.

ERABILERA: Bide nagusia inguruko eraikuntza eta lursailietara joateko erabiltzen da, eta mendi guneko sarbide bezala. Eta bide-adarrak inguruko lursailietara joateko eta mendiko ibilbide bezala erabiltzen dira.

AZPIEGITURAK

Arekak (2146, 1929, 2549, 2137, 2564)

Hodiak (2133, 2144, 2145, 2142, 1920, 1930, 2150, 2151, 213, 2555)

Harri-lubetak (2132, 1919)

Kutxatilak (2143, 2553, 2554, 2556, 2558, 2560)

Harresia (2557)

Seinalizazioa: baimenik gabeko ibilgailuak (2561, 2562, 2563, 2565)

Azud (1927)

Kanadiense erako pasagunea (1928)

Iturria (2559)

Zaborrontzi (2552)

+ 26.1 Bide-adarra - San Martzial

Meatze-aho (2566)

+ 26.2 Bide-adarra - Trenbidea

Harri-lubeta (1911)

Kutxeta (2567)

Hodia (1912, 1914)

Seinalizazioa: baimenik gabeko ibilgailuak (2568)

+ 26.3 Bide-adarra - Deskarga

Seinalizazioa: baimenik gabeko ibilgailuak (2569)

Gas zutabeak (2570, 2571)

Itxiturak (2572, 2709)

+ 26.4 Bide-adarra - Txerrisoro

Itxiturak (2573, 2574)

Amildegia (2576)

Meatze-aho (2575)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 250*, 28, 40*, 57*, 29*, 30, 61, 62*, 63*, 61, 304, 312, 313, 286, 314*, 310* Lursailak; 6. Poligonoa: 55, 28, 29*, 65, 73*, 74*, 30*, 71*, 30*, 33*, 30*, 1* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 250*, 57*, 34, 57*, 29*, 57, 233, 62*, 63*, 60, 266, 331, 68, 314*, 310*, 57, 90, 85, 87 Lursailak; 6. Poligonoa: 29*, 72, 73*, 74*, 30*, 71*, 30*, 33*, 30* Lursailak; 7. Poligonoa: 7 Lursaila; 6. Poligonoa: 1* Lursaila

+ 26.1 Bide-adarra - San Martzial

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 60*, 59*, 57*, 34* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 60*, 59*, 57*, 34* Lursailak

+ 26.2 Bide-adarra - Trenbidea

- Eskuinera: 6. Poligonoa: 29*, 63*, 70*, 39*, 56*, 57*, 61*, 6*, 61*, 9, 6*, 4* Lursailak
- Ezkerretara: 6. Poligonoa: 29*, 63*, 70*, 39*, 56*, 57*, 61*, 6*, 61*, 62, 6*, 4* Lursailak

+ 26.3 Bide-adarra - Deskarga

- Eskuinera: 6. Poligonoa: 29*, 63*, 30*, 6* Lursailak
- Ezkerretara: 6. Poligonoa: 29*, 63*, 30*, 6*, 30, 6* Lursailak

+ 26.4 Bide-adarra - Txerrisoro

- Eskuinera: 6. Poligonoa: 74*, 30*, 2, 1* Lursailak
- Ezkerretara: 6. Poligonoa: 74*, 30*, 67, 1* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide nagusia bai bide-adar desberdinak azaltzen dira. Bide nagusia, hasieran, Saroia eta Amasain artean, ibilbide desberdin batekin. Eta 26.2 bide-adarra “Ferrocarril de sangre” izenarekin azaltzen da.

IGNko Planoa: Bai bide nagusia bai 26.1, 26.3 eta 26.4 bide-adarrak herri bide bezala azaltzen dira, eta 26.2 bide-adarra ordea, tuberkulosen bidea bezala.

Inbentarioa: bide nagusia 2.350 bidea, San Marcial-Saroia bidea, eta 2.391 bidea, Saroia-Amasain bidea, bezala azaltzen da; eta 26.2 bide-adarra 2.362 bidea, Tuberkulosen bidea bezala.

Ondarea: bide nagusia 165 epigrafearen planoan “camino vecinal” bezala jasotzen da, 175 epigrafean marraztua eta 190 epigrafean herri bide bezala. 26.3 bide-adarra 277 epigrafean herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: bide nagusia 276, 277, 278, 279, 215, 216, 218 eta 202 tramuekin bat dator, 26.1 bide-adarra 274 tramuarekin, 26.2 bide-adarra 214 tramuarekin; 26.3 bide-adarra 211 tramuarekin eta 26.4 bide-adarra 217 tramuarekin.

Eskriturak: Jabetza Erregistroko 43.260 finkan bide nagusia “camino” bezala azaltzen da eta “camino publico” bezala 2.160 finkan.

Plano partikularra: Ubandiacha Basakaiz lursaileko planoan bide nagusiaren Saroia-Amasain arteko zatia marraztuta azaltzen da, bukaerako zatia zerbait desberdina den arren; eta 26.2, 26.3 eta 26.4 bide-adarrak trenbide zahar bezala azaltzen dira.

Beste datu batzuk: Bide nagusia Amasain inguruan bere ibilbidea herri lurretik barrena doa, eta 26.3 eta 26.4 bide-adarrak, ia bere ibilbide osoa.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko planoan azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau eta bere bide-adarrak oso erabiliak dira, inguruari zerbitzua emanaz, eta ondorioz, erabilera eta zerbitzu publikokoa direla argi dago. Gainera, zati batzuk herri lurretik igarotzen dira eta bere izatea hainbat agiritan jasotzen da, adibidez, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan eta finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean.

Hori dela eta, ondasuna udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal onduneko zati izatera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Aipatu den bezala, San Martzialera doan bide-adarra, ermitatik gertu, eta Deskargako bide-adarra, zati batzuk sastrakaz beteta daude, zati batzuk erdi itxita eta beste batzuk galduta dituelarik. Hori dela eta, ikuspuntu juridikotik begiratu, zati hauek garbitu eta desbrozatu beharko lirateke, moztuta

gelditu diren zatiak berreskuratuz, eta horrela bere trazatua galdu dezan eta aurrerantzean usurpatua izatea galaraziz.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bide nagusia eta gainerako bide-adarrak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

27. FRANTZIUN BIDEA

HASIERA: Ibarlako Errepidea, Ibarla jatetxea.

BUKAERA: Amasain bidea (26 zkia.)

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Ibarla (M-21), Txantrenea (M-35), Frantziuntxiki (M-37), Frantziunzar (M-39), Frantziun (M-41), Mediavilla (M-43,43B), Aizpiolea (M-99), Frantziunberri (M-47), Mendian baita (M-45), Mendialde (M-49), Gornotxenea (M-51), Arriola (M-101), Etxea (M-53), Petricorena (M-55), Berroalde (M-79), Berroa (M-77), Berroaondo (M-75) eta Berroaberri (M-73).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - TXANTRENEA	51 m	4,2 m	Asfaltoa	Ona	IG
TXANTRENEA - 27.2 BIDE-ADARRA	519 m	2,6 - 3,4 m	Hormigoia	Ona	IG
27.2 BIDE-ADARRA - BUKAERA	554 m	1,8 m	Lurra	Ona	LI
BIDEA GUZTIRA	1.124 m				
+ 27.1 BIDE-ADARRA: BERROA	479 m	2,5 m	Hormigoia	Ona	IG
	171 m	1,5 m	Lurra	Ona	O
	73 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	77 m	2,6 m	Legarra	Ona	IG
27.1 BIDE-ADARRA GUZTIRA	800 m				
+ 27.2 BIDE-ADARRA: GORNOTXENEA	461 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
	132 m	--	Lurra	Galduta	O
	75 m	1,5 m	Lurra	Erdi itxia	O
27.2 BIDE-ADARRA GUZTIRA	668 m				

GUZTIRA DUEN LUZERA: 2.592 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide nagusia orokorrean egoera onean dago, lurrezko zorua duen azken zatia ixten hasi den arren. Gainera, lurrezko zorua duen zatian itxitura bat dago, baina honek ez du igarotzea galarazten.

Berroako bide-adarra egoera onean dago, baina lurrezko zorua duen zatia belarrez estali da, bere ibilbidea oraindik ere nabaria den arren.

Eta Gornotxeneako bide-adarra baserrira iritsi arte egoera onean dago, baina hemendik aurrera, zati bat desagertu egin da zelai batean bihurtu delako eta gainerakoa erdi itxita dago bertan dagoen landaretzaren ondorioz. Gainera, igarotzea galarazten duen itxitura bat dago.

ERABILERA: Bai bide nagusia bai bide-adarra inguruko eraikuntza eta lursailera joateko erabiltzen dira.

AZPIEGITURAK

Hoditxo (2180)

Areka (2578, 2577)

Hodia (2579)

Itxiturak (2717)

Postontzi (2205)

+ 27.1 Bide-adarra - Berroa

Kutxatilak (2580, 2581, 2582, 2583, 2584)

Hodia (2198)

Areka (2197)

Zubia (2196)

+ 27.2 Bide-adarra - Gornotxenea

Hodiak (2185, 2186)

Itxiturak (2585).

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 45*, 327, 280, 41*, 40*, 57*, 36*, 57*, 29 Lursailak.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 45*, 41*, 42, 83, 40*, 57*, 36*, 57* Lursailak

+ 27.1 Bide-adarra - Berroa

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 280, 40*, 326, 282*, 38, 265*, 259*, 55*, 5 Lursailak.
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 40*, 282*, 265*, 259*, 55*, 264 Lursailak.

+ 27.2 Bide-adarra - Gornotxenea

- Eskuinera: 5. Poligonoa: 40*, 36*, 258, 36*, 269*, 265* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 40*, 36*, 269*, 265* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bai bide nagusia bai bide-adarrak azaltzen dira, baina 27.1 bide-adarra bukaeran ibilbidea zerbait desberdina dauka.

IGNko Planoa: bide nagusia eta 27.1 bide-adarra herri bide bezala azaltzen dira. 27.2 bide-adarra, ia Gornotxenearen zortasun bidea bezala, gero herri bide bezala; eta azken zatia ordea ez da azaltzen.

Inbentarioa: bide nagusia 2.358 bidea, Frantziun-Aginaga bidea, bezala azaltzen da; eta 27.1 bide-adarra 2.359 bidea, Frantziun-Berroa bidea, bezala, baina 27.2 bide-adarraren inguruan ibilbide desberdin batekin. 27.2 bide-adarra ordea, Frantziuneraino bakarrik markatuta dago, eta lerro lodi batekin.

Ondarea: bide nagusia 175 epigrafeko planoan marraztuta azaltzen da eta 190 epigrafean herri bide bezala.

Obrak: bide nagusia 288, 289, 290 eta 292 tramuekin bat dator, 27.1 bide-adarra 293 eta 316 tramuekin , eta 27.2 bide-adarra 291 tramuarekin.

Eskriturak: 2.159 finkan 27.1 bide-adarra 27.1 “camino carretil público” bezala jasotzen da, 14.170 finkan “camino” bezala eta 7.458 finkan “camino carretil” bezala. 27.2 bide-adarra 44.213 finkan “camino publico” bezala azaltzen da, eta 41.390 finkan “camino carretil” bezala.

Plano partikularra: Frantziun-berri baserriko plano partikularrean, bide nagusia eta bide-adar guztiak azaltzen dira “camino público” bezala.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko plano batean azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan 27.2 bide-adarraren lehen zatia zortasun bide bezala azaltzen da, baina 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan; 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan, finka mugakideen jabetza erregistroko deskribapenean eta lursaileen planoan ordea, herri bide bezala jasotzen da.

Gainerako bide-adarrak eta bide nagusia ordea, herri bide bezala jasotzen dira kontsultatu diren agiri guztietan. Gainera, bai batzuk bai besteak, inguruko lursail eta eraikuntzetara joateko erabiltzen dira, eta ondorioz, erabilera eta zerbitzu publikokoak dira.

XEDAPEN JURIDIKOA: Aipatu den bezala, Institutu Geografiko Nazionaleko planoan, 27.2 bide-adarra zortasun bide bezala azaltzen da, baina kontsultatu den gainerako agirietan herri bide bezala. Hori dela eta, bide honen jabetzaren

inguruan eztabaidak egonez gero, udalak Ofiziozko ikerketa espediente bat kudeatu beharko du, bide-adar hau udal jabariko delako frogatzeko.

Ofiziozko ikerketa egiteko eskumena Tokiko Entitateen Ondasunen Araudiko 45. artikuluan onetsia dago, eta prozedura 46. artikuluan eta ondorengoetan arautzen da. Eskumen hori egin edo gauzatu daikete, seguruena ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- 1.- Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri eman. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.
- 2.- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- 3.- Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontatzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.
- 4.- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- 5.- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- 6.- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.

7.- Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behin-betiko jabetza bada.

Bestalde, bide nagusiaren azken zatia sastrakaz zikintzen hasi da, 27.1 bide-adarreko lurrezko zatia belarrez estalia dago eta 27.2 bide-adarraren zati bat erdi itxita dago sasiak dagoelako. Hori dela eta, zati hauek garbitzea gomendatzen da, moztuta gelditu diren zatiak berreskuratuz, eta horrela bere trazatua galdu dezan eta aurrerantzean usurpatua izatea galaraziz.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Azkenik aipatu beharra dago, 27.2 bide-adarraren zati bat galdu egin dela, zelai batean bihurtu delako, eta bertan gainera, igarotzea galarazten duten itxitura bat dago. Hori dela eta, itxiturak ireki egin beharko lirateke, igarotzea galarazten ez duten beste itxitura batzuegatik ordezkatuz. Sor litekeen aurkako edozein jarrerak ofiziozko berreskurapeneko espedientea irekitzeko zioa emango luke, Tokiko Entitateen Ondasunen Arautegian xedatutakoaren arabera lege-testu bereko 46. artikuluan eta hurrengoetan zehazten delarik prozedura. Eskumen hori edozein unetan egin edo gauzatu daiteke, seguruenera ere ondasun publikoa baita.

Horretarako prozedura, ondoko ekintza hauetan zehaztuko litzateke:

- Udal Korporazioaren akordioa (Plenoa) espedientea irekitzeko, zeina Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu beharko den, identifikatu ahal izateko ondasunaren berri emanaz. Aipatutako aldizkariaren ale bat Udalerriko iragarki-oholtzan jarriko da 15 egunez.

- Espedientea irekitzeko akordioa Administrazio Autonomikora igaroko da, bere eskubideak bete ditzan eta dagokiona alega dezan.
- Hilabeteko epean, iragarki-oholtzan iragarkia kendu behar denetik hurrengo egunean kontaktzen hasita, zerikusia duen pertsonak bere eskubideak defendatzeko egokiak irizten dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte, euren alegazioak oinarritzen dituzten agiri guztiekin batera.
- Aurreko puntuan adierazitakoaren kalterik gabe, espedienteak erasaten dituzten pertsonak badira, ezagunak eta identifikagarriak, pertsonalki jakinarazi beharko da.
- Aipatu epea igarota, froga-aldia irekiko da agiriak eta dagozkion frogak onartu ahal izango dira, zeinak udaleko zerbitzuek baloratuko baitituzte, erasandako pertsonen espedientearen berri 10 eguneko epean jakinaraziko zaielarik.
- Espedientearen ebazpena Udal-Korporazioak emango du, idazkariaren alde aurretiko txostena aztertu ondoren.
- Akordioari bi bidetatik egin dakieke aurka, bide administratibotik, inpugnatzen dena eskubidea bera baldin bada, hau da, prozedura betetzea eta aurrera eramateko baldintzak, eta eskubide zibilen bidetik, eztabaidatzen dena ondasunen jabetza edo berauen behinbetiko jabetza bada.

28. SIUTZ BIDEA

HASIERA: GI-3454 Errepidea, Ibarlatik Oiartzunera Erlatzetik doana, Dorretzarra.

BUKAERA: Siutz Ikastola.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Siutz Ikastola (M-65), Siutz (M-67).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - BUKAERA	94 m	5,5 m	Asfaltoa	Ona	IG
	834 m	4,5 m	Asfaltoa	Ona	IG

GUZTIRA DUEN LUZERA: 928 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide hau egoera ezin hobean dago.

ERABILERA: Bide hau Siutz ikastolara joateko erabiltzen da.

AZPIEGITURAK

Postontziak (2586)

Arekak (2587, 2588)

MUGAKIDEAK: Bide hau hiri-lurretik barrena doa.

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

IGNko Planoa: bide nagusia bakarrik azaltzen da, eta zortasun bide bezala.

Inbentarioa: bide nagusia 2.360 bidea, Siutz bidea, bezala azaltzen da.

Ondarea: Bidea 228 epigrafean azaltzen da, lursailen salerosketa bezala.

Obrak: bidea 332 eta 333 tramuekin bat dator.

Beste datu batzuk: Bide osoa bere ibilbidea herri lurretik barrena egiten du.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan zortasun bide bezala jasotzen da, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan eta Irungo Udalak 1999. urtean egindako artalaren planoan herri bide bezala jasotzen da.

Baina bide hau bere ibilbidea herri lurretik egiten du, beraz, ez du zentzu handirik zortasun bide bat izatea, kasu honetan, herri jabariko ondasun baten gain herri zortasun bat eratuta egongo litzateke eta, honek koherentzia juridiko eza suposatuz. Hori dela eta, herri jabariko ondasun baten aurrean gaudela egiaztatu daiteke, inguruari zerbitzua ematen diola, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik.

XEDAPEN JURIDIKOA: Fitxa honetako bideak, edozein udal ondasunek behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

29. BERROA BIDEA

HASIERA: GI-3454 Errepidea, Ibarlatik Oiartzunera Erlatzetik doana, Dorretzarra.

BUKAERA: Amasain bidea (26 zkia.), Iruzuloeta.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: Berroazpi (M-71), Berroaberri (M-73), Berroaondo (M-75), Berroa (M-77) eta Berroalde (M-79).

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - BERROAZPI	285 m	3,0 m	Hormigoia	Ona	IG
BERROAZPI - BUKAERA	216 m	1,8 m	Lurra	Ona	LI
	950 m	2,4 - 2,8 m	Legarra	Ona	LI

GUZTIRA DUEN LUZERA: 1.451 m.

BIDEAREN EGOERA: Bide hau orokorrean egoera onean dago, baina lurrezko zorua duen zatia, zikintzen hasi da.

ERABILERA: Bide hau inguruko eraikuntza eta lursailera joateko erabiltzeaz gain, Amasain bidearekin (26. zkia.) komunikatzen du.

AZPIEGITURAK

Arekak (2590, 2591, 2592)

Seinalizazioa: 30 km/h-ko gehieneko abiadura eta 20 Tonako gehieneko pisua (2299, 2300)

Zaborrontzi (2589)

Hodia (2307)

biltokia (2306, 2308 –, 2309, 2310 –)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 6. Poligonoa: 4, 69, 8, 61 Lursailak; 5. Poligonoa: 73*, 74*, 70*, 71* Lursailak; 6. Poligonoa: 56*, 55* Lursailak
- Ezkerretara: 5. Poligonoa: 311, 316, 7, 5, 263, 302, 303, 73*, 72, 73*, 74*, 70*, 71* Lursailak; 6. Poligonoa: 56*, 55* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: Bidea azaltzen da, baina Berroa aldean ibilbidea zerbait desberdina dauka.

IGNko Planoa: bidea Berroa-Sarria herri bide bezala azaltzen da.

Inbentarioa: bidea 2.361 bidea, Berroa-Sarria bidea, bezala azaltzen da.

Ondarea: bide bezala azaltzen da 165 epigrafearen planoan.

Obrak: bidea 315 eta 317 tramuekin bat dator.

Eskriturak: Bidea Jabetza Erregistroko 43.262 finkan "camino" bezala azaltzen da.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da, 1901. urteko planoan azaltzen delarik.

EGOERA JURIDIKOA: Ez dago bide honen jabetza titulurik, baina bere izatea 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan, Institutu Geografiko Nazionalako Planoan, 1993. urteko Irungo Udaleko Ondasunen, Azpiegituren eta Herri bideen inbentarioan, 2007. urteko Irungo Udaleko Ondasunen eta Eskubideen udal inbentarioan, 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan eta Jabetza Erregistroko 43.262 finkaren deskribapenean jasotzen da, beraz, ez dago zalantzarik bere titulartasun inguruan.

Gainera, bidea inguruko eraikuntza eta lursailalara joateko erabiltzen da, eta Amasain bidearekin (26. zkia) komunikabide bezala, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik.

Hori dela eta, bide hau udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasuneko zati izatera igarotzeko.

XEDAPEN JURIDIKOA: Aipatu den bezala, lurrezko zorua duen ibilbidearen zati bat zikintzen hasi da, hori dela eta, zati hau garbitu egin behako litzake, bere trazatua galdu dezan galarazteko eta aurrerantzean usurpatua ez izateko.

Horretarako, gogoan izan Entitate Lokalen Ondasunen Arautegiko 70. Artikuluak xedatzen duenaren arabera, Entitate Lokalak edozein unetan jabari publikoko ondasunak berreskuratzeko ahalmena daukatela.

Bidearen gainerako zatiak ordea, edozein udal ondasunak behar duen arta-lana egitea baino gehiago ez du eskatzen.

30. AMEZTI BIDEA

HASIERA: Errepidea GI-3454, Ibarlatik Oiartzunera Erlatzetik doana.

BUKAERA: herri lursailak.

SARBIDEA EMATEN DIEN ERAIKUNTZAK: bat ere ez.

BIDEAREN EZAUGARRIAK:

KOKAPENA	LUZERA	ZABALERA	ZORUA	EGOERA	ERABILG
HASIERA - BUKAERA	589 m	2,0 - 2,5 m	Lurra-Harria	Ona	LI

GUZTIRA DUEN LUZERA: 589 m.

BIDEAREN EGOERA: Egoera onean dagoen mendi-bide bat da.

ERABILERA: Bide hau udalerriko lursailletara joateko erabiltzen da.

AZPIEGITURAK

Seinalizazioa: baimenik gabeko ibilgailuak (2593)

MUGAKIDEAK: Bide honek mugakide hauek ditu:

- Eskuinera: 9. Poligonoa: 120*, 25*, 123*, 25*, 35* Lursailak
- Ezkerretara: 9. Poligonoa: 120*, 25*, 123*, 25*, 35* Lursailak

JABETZA TITULUA: Ez dago bidearen jabetza tituluaren konstantziarik, baina jarraian adierazten diren dokumentuetan bere izatea azaltzen da:

1901eko Planoa: bidearen lehen zatia bakarrik azaltzen da.

IGNko Planoa: bidea herri bide bezala azaltzen da.

Obrak: bidea 213 tramuarekin bat dator.

Beste datu batzuk: bide osoa herri lurretik doa.

ESKURATZE DATA: Bide honen eskuratze data ez da ezagutzen, baina antzina-antzinatik Irungo Udalarena da.

EGOERA JURIDIKOA: Bide hau bere ibilbide osoa herri lurretik barrena egiten du, gainera, Institutu Geografiko Nazionaleko Planoan eta 1999. urtean udalak egindako arta-lanen planoan herri bide bezala jasotzen da, eta bere zati bat, 1901. urtean egindako Irungo Udalerriko Planoan.

Bestalde, inguruko herri lurretara joateko erabiltzen da, inguruari zerbitzua emanaz, eta ondorioz, erabilera eta zerbitzu publikokoa izanik.

Hori dela eta, bide hau udal inbentarioan sartzea aski da formalki udal ondasuneko zati izatera igarotzeko.

